HONETARA EZKERO

ARANTXA ITURBE



ARANTXA ITURBE

Honetara ezkero

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.eus/ebook

© 2017 Arantxa Iturbe
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2017ko azaroa
Edizio hau: 2017ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Potroak

“Ines horrek dizkin potroak!”. Aldiro esaten diot Txelori ez hitz egiteko hala inori buruz. Eta gutxiago laurogeita hamarrak pasatako etxekoandreaz. Astean hirutan joaten zaio etxera, bi orduz. Lurrari argizaria ematera eta zilarrak garbitzera. Bi langintza horiek adostu zituzten.

Bakarrik bizi da Ines laurehun metro karratuko etxean. Bakarrik edo. Laurogeita lau bete zituenean bizitza osorako soldata agindu zion bizilagun bati, Loliri, gauero haren etxera biltzeagatik. Egunean zehar beste laguntzaile bat izaten du, etxeko lanak egin eta jatorduak moldatzeko. Denbora gehiago egiten du gabe, iritsitakoa bidali eta hurrengoa aurkitu bitartean.

Ez da eraman errazekoa Ines. Denak behar du berak nahi bezala. Eta ez bakarrik gatzak edo plantxak, tenperaturak edo usainak. Denaren barruan sartzen dira iritziak, erantzunak, itxura, hitz egiteko modua eta jarrerak ere. Denak berak nahi bezala eta berak nahi duenean. Eta ia dena nahi bezala egiten dutenak aurkitzeko suerteagatik harro egon beha-

rrean –eta izan ditu pare bat halako–, huts egiteen bila xahutzen ditu indarrak Inesek.

Txelori grazia egiten dio. Edo egin izan dio, behintzat. Beti ekartzen du xelebrekeriaren bat Inesen etxetik bueltako kafesnerako. Ez Inesek kontatua. Inesek ez dio ezertxo ere kontatzen. Agindu bakarrik. Eta tranpak jarri.

“Tranpak, bai, tranpak: edo ez dun tranpa hogei eurokoa silloiaren atzean ezkutatzea?”.

Inesak domatzen abila dela esaten du Txelok. “Segituan esan zionat: Ines, hogei eurokoa silloiaren atzean ezkutatzen didazun hurrengo aldian, hartu eta ez naiz gehiago itzuliko. Zeuk ikusi”. Inesek ukatu egin omen zion, jakina. Nahi gabe galduko zuela, erori egin izango zitzaiola. “Zahartu eta badakizu...”.

“Zahartu eta gaiztotu”, egiten du barre Txelok. Egiten zuen.

Autoz hamar ordutara bizi du seme bakarra Inesek. Auzoan entzuna du, Inesen jaiotetxean apopilo egondako gazte segail batena ote den. Sekula ez dio galdetu. Orain dozena erdi urte izan zuen Txelok semearen berri ere, Inesenean hasi berritan etxekoandrea ohe ondoan erorita aurkitu zuenean. Ez zuen asko aztoratu Txeloren deiak. Loliri abixatuko ziola, ea

hark atenditzerik ba ote zuen, eta bestela zuzenduko zuela zahar-etxeren batera indartu bitartean. Txelok argitu zion ez zirudiela ezer larririk zuenik, medikua etortzekoa zela eta geratuko zela zain Loli azaldu ezean. Eskertu zion semeak. Emateko berri, mesedez.

Loli baino lehen iritsi zen medikua. Txeloren susmoa baieztatu zuen: ezer hautsirik ez, tentsioaren gorabeheraren batek eragindako ondoeza. Deskantsua, eta biharamunerako berria bezala. Horixe esateko deitu zion atzera berriz semeari, eta hark ez zuela besterik espero, erantzun. “Bi bat hilabetez behin egiten du halakoren bat. Medikutara joatea ez da bere estiloa”, gehitu zuen.

Hiru zahar-etxetan egona da Ines. Luxuzkoak hirurak. Hiruretatik bidali zuten.

Semea ahalegindu zen interna bilatzen. Ama moldatu zen uxatzeko.

Inesek nahi duena egitea du helburu bakar: orain-txe “Benidorko espezialista batekin ordua hartuta daukat”; eta hurrena, “Abokatuarekin hitz egin behar dut, Madrilen”; edo “Asunto bat Taranconen” edo “Talavera de la Reinan gestioa” agintzen dio Loliri. Joan-etorria taxian beti. Eskura ordaintzen die denei.

Loliri ere bai obedientzia.

Semeak deitzen dio tarteka Txelori, ea amak ez ote duen oraindik etxetik bota galdetzeko. Eta Txelok gorabeheraren baten berri emandakoan barre egiten du, hamar ordutara entzuteko moduko barrea. Txelok ez du zer galdurik. Pentsatzen duena esaten dio Inesi eta baita semeari ere, eta lasai sartu eta irten ohi da haren etxetik. Lasai sartu eta irten izan da orain arte.

Noizean behin, barruan nahikoa distira badela irizten dionean, haize pixka bat hartzera ateratzen du Ines. Gogo onez eraman izan du betiko media beltzak betiko dendan erostera, edo betiko media beltzak betiko dendan erosteko dirua ateratzera betiko bankura ere bai, betiko txokolategian kafesnea, “Kafe-kafea, goraino, esne hotz tanta batekin, aparrik gabe, eta behar bezala garbitutako katilu zabalean” hartu ondoren.

“Ines horrek dizkin potroak!” esanez iritsi da, berandu gaur. Inori buruz hala ez hitz egiteko entzuteko betarik gabe. Barre eta negar bereiz ezinean kontatu dit Inesen etxerako bidean, auzoko bankuko zuzendariak inguratzeko keinua egin diola ataritik. Ez dakiela ondo ari ote den, baina jakinaren gainean jarri nahi duela Ines banketxean izan dela. Goizean goiz. Bulegoa zabaltzerako zain.

“Ines?”, Txelok; “ez da oinez ibiltzeko gauza-eta!”. Oinez. Ines. Lehen orduan. Eta harekin bi ezezagun. Eta garrantzitsuena: “Inesek etxea saldu du. Milioi batean. Milioira iritsi gabe”.

Txelori milioia arnasbidean trabeska geratu zaio. Itotzera iritsi gabe. “Euro” erantsi du banketxeko zuzendariak, kopuruak kalte egitekotan, zenbatekoa zehaztearen garrantziaz jabetuta. “Hura da jabe bakarra”. Ines, noski. Saltzailearekin eta eroslearekin etorri omen da. “Ez dakit ondo ari ote naizen, baina kontzientziak norbaiti esateko eskatzen zidan”.

Txeloren kontzientziak semeari deitzeko eskatu dio. Korrika txikian igo da Inesen etxera. Itsumustuan ireki du atea eta han zer, eta ohetik jaikitzeko ahalegin antzuan señora, kamixoian, ileak nahastuta. “Gaur ere berandu, Txelo...?”.

Potroak, Ines horrek!

“Ileak nahastuta, hi! Ileak apropos nahasteko lana hartu din! Esnatu berria balitz bezala! Eta kamixoia soinean! Kaleko arropak erantzi eta berriz ere ohekoa jantzita ni iristerako. Hik uste?”.

Ez dio semeari deituko. Oraingoan ez. Kontzientzia distira egin arte argizariz igurtzi behar badu ere, oraingoan ez. Ez dio deituko.

Lasai hartzeko esan diot. Berak ezagutzen du Ines inork baino hobeto. Hartuko dio neurria berriz ere. Eta deituko dio semeari aurrerago. Barre egingo du hark.

Barrerik egin gabe altxatu aurretik esan dit: “Hire alabak topatuko zinan umezaina, noski”.

Profanazioa

Isilik egin dute etxerako bidea. Polizia-etxera joan da senarraren bila auzoko autorik goiztiarrenak esnatzen hasterako. Handik jaso zuen mezua gehienak lotan zeudela. Senarrak kalabozoan pasatuko du gaua. Profanazio delitua leporatuko diote.

Blai eginda itzuli dira. Ez dira konturatu ere egin euria gogotik ari duenik.

– Zer? Ez duzu ezer esateko asmorik?

– Zer esatea nahi duzu?

Esatea nahi luke zer arraio egiten zuen kanposantuan hilobi bateko lurra iraultzen. Zer zuen buruan. Zer pentsatzen ari ote zen belar txarrez jositako hilobia zulatzen hasi zenean. Ezer pentsatzen ari ote zen. Pentsatzen ote duen zerbait. Zer.

Senarrak ere mutu jarraitzen du. Haren barruko ahotsak ez.

“Profanazioa zer den badakizu? Delitua dela bai. Hori badakizu, noski...”. Gertakizunak irakurri dizkidate. Eguna, ordua, tokia, zertan ari nintzen. Hor altoa eman diet. “E! Ez dut sinatuko profanatzen ari nintzela esaten duen deklaraziorik. Belar txarrak kentzen

hasi naiz, eta gero, ba, horixe”. Ea zerbait erantsi nahi al dudan. Arrazoiren bat, edo aitzakiaren bat? Zertan ari nintzen argitzeko bidea emango lukeena, epai bidean jarri aurretik. Hori ere gehitu dute. Ezetz nik. Eta ez dudala sinatuko profanazioarena. Hilobi bat zabaltzen saiatzea profanazioa dela. Ez duela beste izenik, beraz, hala geratuko dela deklarazioan. “Lehendabiziko aldia da?” galdetu didate gero. Eta erantsi dute: “Psikologoaren txostena lagungarri izango zenuke epaiketan”.

Emazteak ez du ezer entzun.

– Gaur? Juxtu gaur?

Emaztearen gurasoek bazkaltzera gonbidatu dituzte astebururako. Berrogeita hamar urte ezkonduta. Senarra geratu da argazkiak ateratzekotan. Esku ona du horretarako.

– Zer esango diegu? Esan! Zer esango diegu nire gurasoei? Ze, guk nahi edo ez, honezkero zabaldu da kontua.

“Isilpean gordetzerik balego. Beste gauza batzuk bezala. Bolada txarrak, esate baterako. Zergatik egiten dugun larrutan. Noiz. Nola. Egin, ez bageunde bezala. Edo ez. Egin baino egon. Bizirik dauden bi lagunen arteko desioa gauzatzetik baino nekrofiliatik ger-

tuago daude gure sexu-jardunak. Ez diogu inori esango. Inork ez du jakin behar”.

Senarrak askotan pentsatu izan du gorpu batekin aritzearekin ez duela alde handirik izango. Ez du esango. Ez du nahi emazteak gaizki hartzerik. Hainbeste urte elkarrekin eta oraindik ez du lortu minaren esklusibitatea ez dela berea ulertaraztea.

Bi ahotsek elkar entzungo balute sikiera. Baina errazago entzuten dira bizilagunenak. Sesioan ari dira.

– Ez dakizu zer galdetu didaten.

– Zer?

– Nekrofilia zer den ba ote dakidan.

– Eta?

Gogoz ari du erauntsia. Bizilagunen eztabaida, berriz, baretu da. Barre ttikiak entzuten dira orain. Emazteak hitz egin du.

– Badakit zer pentsatzen ari zaren...

– Zer?

– Txortaldi on batek konponduko duen ezer ez dagoela munduan.

– Horrelako zerbait...

– Izutu egiten nauzu.

– Ondoko horiek lasaitu direla ematen du.

– Kanposantukoa... ez zenuen... ez zenuen egingo... zuk... ez esan zuk...

– Zer?

– Ez dut pentsatu ere egin nahi! Gorpu baten bila ari zinen?

Bozgorazko erantzunik merezi ez duten galderak. “Mesedez!. Ez dut gorpu batekin larrutan egin nahi! Ez zait halakorik inoiz burutik pasatu! Bizirik dagoen norbaitekin aritu nahi nuke”.

Galderei ez erantzuteagatik egiten diren galderak.

– Afaldu nahi zerbait?

– Ez.

– Seguru?

– Pentsatu al duzu zer jantzi bazkaritarako?

– Ez.

– Txaketa bat erostea okerrago ez. Bihar bertan igual?

– Igual.

– Amak soinekoa eginarazi du. Gorri-gorria. Ondo ematen dio gorriak. Pozik dago argazkiak zuk atera behar dituzulako.

Badaki. Ez dute halako argazkilari merkerik beste inon topatuko.

– Zer? Ez duzu ezer esateko asmorik?

– Zer entzun nahi duzu?

– Egia.

– Zer da egia?

– Ez jarri filosofo orain! Ez ihes egin!

– Ez, benetan. Zer da egia?

– Euria ari du. Hori egia da.

– Euria ari duela uste duzu. Hori da egia.

– Entzun egiten dut.

– Egia hori da.

Emazteak barruko ahotsaren bolumena igo du, senarrak entzuteko moduan.

– Egia. Ez dut besterik nahi. Lekukorik gabe. Aurreiritzirik gabe. Epairik gabe. Lerro artekorik gabe. Bigarren zentzurik gabe. Susmorik gabe. Gaizki ulerturik gabe. Interpretaziorik gabe. Uste okerrik gabe. Egia. Zergatik. Zertara.

– Eta zergatik gaur, noski.

– Baita hori ere.

– Baita hori ere? Edo hori lehendabizi?

– Ordena ez zait axola. Erantzungo didazu bazkaritatik bueltan. Ez diet gurasoei minik egin nahi. Bi egun dauzkazu erantzuna pentsatzeko. Ondo pentsatu. Edo ez da gehiago beste bazkaririk izango.

Atertu duela ematen du. Senarrak argazki kamera hartu du. Euria egin berritan lapurtzen zaizkio gauari itzalik ederrenak.

Sekretua

Landareei hizketan gogoratzen dut amona. Baratzeko erreinua bere zuen urteetan isil-gordean arrimatzen gintzaizkion. Haren hitz sekretuak entzun nahi guk. Hark belarriak luze, ordea. Eskarmentua bezain. Isildu egiten zen gu iristerako.

Landareei hizketan gogoratzen dut landareei hizketan ikusten genuelako urrutitik. Baratze ertzean beti.

Bista, pausoa eta entendimendua laburtuz joan zitzaizkion arren ez zion inoiz utzi landareak zaintzeari. Aginduak ematen zizkigun aholku itxuraz. Zer, nola, noiz. Baina hitzik ere ez esan beharreko hitzez.

“Sekretua ez dago hitzetan”, aitortu zidan hil hurren. “Sekretua lur azpian dago”, irribarrez. “Dagokion tokian”.

Urtetara nik hartu nuen amonaren ardura. Hain lur emankorrak merezi zuela astinaldi bat eta, denboraz justu samar ibili arren, ziento bat letxuga eta beste hainbeste porru zaintzeko gai izango nintzela sinistuta heldu nion aitzurrari. Belar txarrak nonahi. Amonaren ertz kuttunean haiek ere indartsuen. Haren hitzas-

pertuen oihartzunaren eragina nonbait, egin nuen nire baitan. Lurra jorratzerakoan ulertu nuen amonak esana. Kaskezur batek begiratu zidan begi-zulo hutsetatik. Lurrez bete nizkion eta estali egin nuen atzera berriz. Sekretua, dagokion tokian.

Baratzezain hasi baino lehen izan nuen garai bat, jakinminak zirikatuta aitona aurkitzeko ahaleginean ibili nintzena. Bati eta besteari galdezka. Urrutien alde eginda ere nonbait behar zuelako, eta betirako alde eginda ere, zergatiren bat izango zuelako. “Bai, koldarkeria”, erantzun zidan amak. “Koldarra behar du emaztea sei umerekin utzi eta desagertzen den gizonak”. Erantsi zuen inoiz ez ziola amonari nahikoa eskertuko halako familia ugaria bakarrik hazteko egindako ahalegina. Inork ez zidan argibide zentzuzkorik eman. Herrian topatu nuen aitonaren lagun kaskailua. “Biharamunean usotarako geratu den gizasemeak ez du berez alde egiten”, esan zidan. “Nahikoa esan dizut”. Bakoitzak zuen bere teoria, baina herrian geratu ziren denak. Eta baita gure amona bere sei semealabekin ere, inguruan ereindako susmoei ongarririk eman gabe erruki-uzta biltzen.

Aitzurra lurrean utzita, “Maite al zuten elkar?” galdetu diot amari. Ez dit erantzun oraingoan. Beldur da

berriz ere aspaldi lurperatua uste zuen mina jorratzen hasiko ote naizen. Izeba gazteenak erantzun dit amaren ordez: “Maite duenak zaindu egiten du, ez du ihes egiten”. Baratzera begira geratu dira biak: “Alde ederrekoa gure amak zaintzen zuenean”.

Etxea

Etxe parean autobidearen hormatzar hura eraikitzen hasi ziren egunean esan zuen emazteak lehendabizikoz ezin zutela han jarraitu. Ez zituen umeak pareta haren kontra hazi nahi. Urrutira begiratzeko aukera eman nahi zien. Eta arriskua, zer? Edozein egunetan denak lotan zeudela kamioiren bat sartuko zitzaien tximiniatik barrena. Joan beharra zeukaten handik. Berandu baino lehen.

Senarrak ez zion kontrarik egiten. Nekatuegi itzultzen zen fabrikatik. Egunen batean, esaten zion, lotara aurretik, egunen batean.

Autobidea eraiki zuten eta hormatzarra oraintxe frontoia, oraintxe ezkutalekua eta oraintxe arbel erraldoia bihurtu zen neska-mutikoentzat. Egun magikoak ere izaten zituzten. Ustekabeko altxorrak iristen zitzaizkien autobidetik. Bidaiariek leihotik apropos botatako edo ustekabean ihes egindako panpina, manta gorria, bixera parea, komiki liburua jasoak zituzten. Autobideak oparitu baino lapurtu gehiago egiten ziela sinistuta, haien amak ez zuen egun bakar batez ere handik alde egiteko gogoa alboratu.

Senarrak hitz emana zion diru pixka bat aurreratzea lortzen zutenean hasiko zirela etxe berriaren bila. Beti bazen zerbait erabakia atzerarazten zuena: laugarren semea, adibidez. Batere espero gabe iritsi zitzaien. Beste hirurak koxkortuxeak zituztela.

Haurdun zegoela jakin zuenean negar egin zuen amak ezkutuan.

Bi urte eta erdira atarian jolasean zebilela hormatzarretik askatutako hormigoi puxka batek jo zuen buruan umea. Puxka txiki batek. Erdiz erdi. Kolpe txarra. Atzera bueltarik gabea. Hormatzarraren oinetan aurkitu zuen arrebak haren bila inguratutakoan.

Arduragabekeria leporatu zioten autobidea eraiki zuen enpresari.

Kalte-ordainarekin ordaindu zuten amaren ametsetako etxe berria.

Emaila

Amets galduen kobazuloan, *Cave of forgotten dreams* ikusten ari nintzen bitartean gertatu zait. Batbatean amesgaizto galduen kobazuloa hankapean zabaldu eta iraganera amildu banintz bezala.

Denboran zehar izandako une zehatz baten flash izoztua da Chauvet leizea.

Nire flash izoztuan zure ordenadorea ageri da piztuta. Egongelan jarri genuen hura. Eta buzoia pantailan. Beste hainbatetan bezala, itzali gabe alde egin berria zara. Asteburuko lantxo bat. Zehaztasun handirik gabe. Zerbait aldatu da, ordea. Begiratzeko tentazioa indartsuagoa da une honetan gure arteko konfiantza betirako urratzeko kezka baino.

Errespetuzko harremana izan da gurea. Lehendabiziko arrakalak ez dira azaldu zaharrak. Sumatzen dut badela zerbait. Susmoa dut ez didazula esan nahi. Edo izan liteke zure kobazuloan eroso, zuk oraindik ezer ez sumatu izatea eta nire susmoa besterik ez izatea. Litekeena da. Baina azken orduko hainbeste joan-

etorri. Eta etortzen zarenean ere, parte bat han nonbait utzita.

Kobazulo hauetan gerta zitekeenari buruzko istorioak sortzea da gure lana.

Narratzailearen ahotsa gutaz ari dela ematen du. Beti aipatzen zenizkidan haren pelikulatako narrazioak. Eta haren narratzeko modua. Zahartu zaio ahotsa, baina ez galdetzeko gogoa.

Milaka urte dituzten marrazkiez ari dira. Aditu mota desberdinekin. Arrastoak aztertzea da egia ezagutzeko modu bakarra. Ikertzea. Ikastea. Ezagutu ezinak asmatzera eramaten gaitu. Emailak ez dira hormetan norbaitek noizbait egindako marrak. Ez dago istorioak sortu beharrik historia parean izanez gero. Pantailan irakurri nuen: “Maitea! Ez duzu sinistuko zer eskuratu dudan! Joyita bat. Bideoan eramango dizut asteburuan elkarrekin ikusteko”.

Ez dugu iragana berreraikiko inoiz.

Ez nuen irakurri behar. Ez nuen irakurri behar. Ez nuen irakurri behar.

Baina irakurri egin nuen.

Off-ak jarraitzen du orain milaka urteko gizakiari buruzko hipotesiak eraikitzen, kobazuloko zokoak erakusten dizkigun bitartean.

Gu historiak harrapatuta gaude. Haiek ez.

Irakurri nuen “Ez duzu sinistuko zer eskuratu dudan!”. Erraza izan zen zuretzat eskuratzea. Ez sinisteko moduan erraza.

Telebistaz bota zuten iragarki batek izan zuen errua. Atentzioa deitu zidan: Europako hainbat film laburren emisioaren berri ematekoak zirela esateko bi polizia agertu ziren iruditan, “Egunon, zer moduz zaude?, egunon, zer moduz zaude?, egunon, zer moduz zaude?” errepikatzen. Txandaka. Behin eta berriro. Hainbestetan imitatu zenizkidan behin –ez dut gogoan non– jaialdiren batean ikusitako polizia greziar haiek! Eta hainbestetan kontatu zenidan pelikula! Segundo gutxitako irudi hura nahikoa izan nuen zure zuzendari fetitxearen film laburra ezagutzeko. Nik bakarrik dakit zenbat ahalegin egin zenituen gerora pelikula hura topatzeko. Eta eginahalak eginda ere ezin.

Ez gara Chauvet leizean zeremoniak egiten zituzten tribuko kide, baina Youtubek izenik ere ez zuen garai hartan. Mezu elektronikoak erabiltzen hasi berriak ginen. Internet zer zen ez genuen oraindik usaindu ere egiten. Traste magiko bat zen orain hemen idatzitakoa oraintxe han jasotzea ahalbidetzen zigun hura. Eta bat-batean, zure pelikula telebistaz ematekoak zirela ikusi nuen. Ez nizun ezer esan. Bideo zahar bat bilatu, eta barruan zer zeukan begiratu ere egin gabe grabatzeko prest utzi nuen. Goizeko laurak eta zazpi minututan eman zuten: *Letzte Worte.* Azken hitza. 1968. urtekoa. Hamaika aldiz ikusia nuela iruditu zitzaidan. Irribarrez joan zitzaizkidan hamahiru minutuak. Fotogramaz fotograma kontatua zenidan. Banekien testigantza bati zein zetorkion segidan. Eta ze irudi.

Gogoan dut zure irribarrea biharamunean bideoa oparitu nizunean. Ez zinen saltoka hasi oso goiz zelako.

Gogoan dut “Ikusiko dugu?” galdetu nizula. Eta zuk, kortesiaz, “Jakina, ikusiko dugu itzultzen naizenean” erantzun zenidala. Asteburuko lantxoa tartean.

Ezin izan zenion barruko pozari eutsi, ordea. Horixe baitu pozak: konpartitu beharra. Eta horixe zuen or-

denadoreak paretari lotua zenean ere: momentuak berehalakoan konpartitzeko modua. Ordenadorea piztu eta asteburuan elkartzekoak zineten arren (hori ez nuen jakin itzali gabe alde egin zenuen arte) idatzi egin zenion: “Maitea! Ez duzu sinistuko zer eskuratu dudan! Joyita bat!”.

Amets galduen kobazulo atarian agertzen den perfume egilearen usaimena nahi nuke, egia ezagutzeko inoren emaila irakurri beharrik ez izateko. Milaka urtetan iraungo du nire kontzientziaren hormetan gaizki egin izanaren arrastoak. Baina ez da arkeologorik hauek interpretatzen asmatuko duenik. Eta nik ez dut inoiz aitortuko. Inori ez. Ezta zure zuzendari miretsia kamera hartuta nire amets galduen kobazuloan agertuko balitz ere. Hari ere ez.

Ez dut ezer esango. Ez, ez dut “ez” esango. Ezer ez dut esango. Ezer ez dut esan nahi. Ezertxo ere ez. Ezer ezer ezer ez. Hau da nire azken hitza.

Azken hitzaren bideoa oparitu eta niretzat ez zen emaila irakurri nizun aste hartan bertan utzi nuen gure kobazuloa. Zure ordenadorea itzali ondoren joan nintzen. Ez zintudan gezurrak asmatzen gogoratu nahi

asteburuko lantxotik bueltan. Eta batez ere ez nizun egia aitortu nahi.

Ez dugu iragana berreraikiko inoiz.

Historiak harrapatuta gaude.

Werner Herzogek egiten dituen filmak ikusten jarraitzen dut nik.

Ohitura zer den.

Sauna

ATZO

– Beste segundo bat eta bertan ziplo eroriko naiz! Botilan eraman beharko nauzu etxera!

– Ze esajeratua zaren, mattea!

– Esajeratua? Esango didazu zuk ez daukazula berorik!

– Eduki gabe!

– Zer egingo duzu zuk hementxe bertan hiltzen banaiz?

– Aurrena jantzi, behintzat. Ez duzu nahiko biluzik lurperatzea.

– Inportako zait bost!

– Ba, niri bai. Aurrena jantzi, eta gero hileta antolatu. A, eta zure amari abixatu. Urte pare batera.

– Ze graziosoa. Ez. Benetan. Zer egingo duzu?

GAUR

– Beste segundo bat eta bertan ziplo eroriko naiz! Botilan eraman beharko nauzu etxera!

– Zerbait esan al duzu?

– Ez. Bero egiten duela.

– Ze esajeratua zaren! Ez dakit zer espero zenuen. Saunan gaude! Nik esanda etorri izan bagina epelak entzuteko nengoen.

– Bero egiten duela. Besterik ez dut esan.

– Ez. Hil egingo zarela esan duzu.

– Eta hiltzen banaiz? Zer egingo duzu zuk?

– Ez dakit zergatik tematzen zaren txorakeria horrekin.

BIHAR

– Beste segundo bat eta bertan ziplo eroriko naiz! Botilan eraman beharko nauzu etxera!

– ...

– Nora zoaz?

ETZI

Neskak esan dio hitz egiteko modu bat dela. Hitz egiteko bere modua. Beti hitz egin izan duela horrela.

Mutilak aldaketez hitz egin dio. Gauzak aldatu egiten direla. Jendea aldatu egiten dela. Egoerak aldatu egiten direla. Iraganean jarraitzen duela leporatu dio. Izandakoan iltzatuta. Aldaketei beldurra balie bezala.

Neskak ezin du ulertu. Maite ote duen galdetu dio. Erantzunik ezean, bigarrenez, beste era batera: bereganako sentimendua aldatu ote den.

Mutilak esan dio: kontua ez da hori.

ETZIDAMU

Ez dira saunara elkarrekin joango.

Ez dira gehiago inora joango elkarrekin.

Hori da kontua.

Terapia

Inoiz kontsultan azaldutako bikoterik zaharrena zen. Gizonezkoa iritsi zen lehendabizi. Ez zituen urruti behar ehun urteak. Ahalik eta adeitsuen egin nion ongietorria, zertara ote zetorren asmatu nahian. Hitzordua omen zuen terapeutarekin. Konfirmatu genuen izena. Bai. Ez zen okerrik. Neuk eman nion ordua telefonoz. Itxarongelara zuzentzen nuen bitartean sartu zen emakumea. Gaztexeagoa. Laurogeita hamarren bueltan, nolanahi ere.

Luzerako ez bazen nahiago zutela eseri gabe itxaron. Biak bat etorri ziren horretan. Ez da ohikoa gure bezeroen artean.

Irribarrez sartu nintzen kontsulta gelan. Azkeneko hitzordukoak zain zeudela jakinarazi nion terapeutari. Nire keinuak atentzioa deituta bekainez “Zer gertatzen da?” galdetu zidan.

– Bi ohar: bat, zutik daude zain. Nahiago izan dute. Biek.

– Ez da seinale txarra.

– Bigarren oharrarekin du zerikusia: berrehunen bat urte izango dituzte.

– Edadekoak direla esan nahi al didazu?

– Edadekoa eta hurrengoari nola esaten zaio? Literalki ehun urtetik gertu. Bietako bakoitza. Fitxa begiratuko zenuen, noski: bikotea dira. Krisian. Deitu zutenean ez nien galdetu ze adin duten.

Nik aginduak bete besterik ez dut egiten. Eta agindua izan zen ez adinik galdetzeko. Krisientzat ez dago adinik, esan zidan. Maitemintzeko adinik ez den bezala, krisiak ere edozeinetan iristen dira. Eta nik, adinak ere garrantzia baduela sinisten jarraitu arren, galdetzeari utzi nion. Ez naiz terapeuta. Iritzia ematea ez dator nire soldatarekin.

Ordubetera irten ziren kontsultatik. Ia beste hainbeste behar izan zuten atera hurbiltzeko.

– Hurrengorako hitzordua emango dizuet. Noiz datorkizue ondo?

– Ez da beharrik, eskerrik asko –erantzun zidan gizonak, lasai.

Emakumeak muxua bidali zidan airean agur modura.

Azkazalak jaten pasatu nuen hurrengo ordu erdia. Ederki luzatzen ari zitzaion txostena. Aldatuta atera zen, kalerako prest, baina parean jarri eta ez nion ir-

tenbiderik utzi. Sekretu profesionala eta otxokuartoak!

– Hitzordurik hartu gabe alde egin du azken bikoteak.

– Neuk aholkatu diet. Ez dute terapia beharrik.

– Galdetu al dezaket zertara etorri diren orduan?

– Seme-alabak isilarazteagatik. Hala esan didate.

– Kanpoko laguntzarik gabe konponduko direla iruditzen zaizu? Adin horretan?

– Bai. Edo ez. Konpontzea zer den. Emakume horren tenplea nahi nuke nik: *“Honetara ezkero* edo *Hemendik aurrera* da kontua” esan dit. “Guk *Hemendik aurrera* aukeratu dugu”.

– Baina...

– Ze inbidia, ezta? A, eta bihar ezingo naiz eguerdira arte etorri. Eta ez, ezin didazu galdetu zergatik.

– Zenbat urte zeramatzaten elkarrekin?

Galdera gehiegi. Beranduegi.

Biharamun goizerako hitzorduak atzeratu ondoren bikotearen fitxa artxibatu nuen “jarraipenik ez” sailean. Bi izenen eta dataren ondoan, “ehun urte inguru” idatzi nuen. Garrantzitsua iruditu zitzaidan.

Atea

Atea ez duzu erabat itxi. Harritzekoa da. Ate guztiak ixten dituzu. Itxita daudenak ere hala ote dauden frogatzeko jaikitzen zara gauerdian, baita etzan aurretik banan-banan zeuk itxi baldin badituzu ere.

Grazia egin zidan hotelean lehendabiziko gau hartan. Ohetik haratago mundurik bazenik ere ahaztuta nengoen ni. Eta bat-batean gure mundutik kanpo zu. Han nonbait. Min ote zenuen, nire kezka. Halaxe galdetu nizun. Erantzun ordez zutitu, atera hurbildu eta giltzari eragin zenion. Zabaldu egin behar izan zenuen ixteko. Lasaituta itzuli zinen nire albora.

Horregatik harritu nau komunekoa jiratuta bai baina erabat itxi gabe ikusteak. Kanila zabalduta daukazu, baina zirrikitutik ezin zaitut ikusi. Eranzten ariko zara albo batean. Denbora luzeegian utzi duzu iturria zabalik. Beti uzten duzu. Esan egin beharko nizuke, baina aspaldian ezin dizut ezer esan. Ez dizut dutxa hondatu nahi. Baina hobe zenuke lehenbailehen ur azpian sartzea. Hobe litzateke denontzat. Honezkero ondo beroa behar du ur horrek.

Arrimatu egin naiz zirrikitura. Ez dakit zergatik. Zirrikituak deitu dit. Zure ondoan bizitzearen albo-kaltea. Esango nuke atea ixteko intentzioz inguratu naizela. Dena kutsatzen da.

Armairuetakoekin ere ezin duzu. Haiek ere ateak dira. Itxi beharrekoak denak.

Ikusi zaitut. Ur azpian paretaren kontra jarri zara. Hankak zabalik. Ur zarrasta ez dator orain goitik behera. Behetik gora baizik. Hankartera. Begiak itxita zaude. Beldur naiz ez ote dituzun kolpetik zabalduko. Atea itxita dagoela konfirmatzeko. Zeuk. Ez du balio nik egiteak. Ez du balio nik esateak egoteko lasai, itxi berri ditudala. Zeuk egiteak bakarrik lasaitzen zaitu.

Ura ere zeuk bideratzen duzu erritmo geldo eta akonpasatuan. Eta gustura zaude. Dutxak luze joko dizula jabetu naiz. Zenbat ur alferrik. Gutako bakoitzak gure esku dagoena egingo balu, baina alferrik ari naiz. Horrek baino min gehiago egin dit, gainera, ateare-nak. Ez zara akordatu ere egin ondo itxi gabe dagoenik.

“Sexurik ez”, esan zenidan aste pare bat lehenago.

“Bolada batean”, erantsi zenuen.

“Sexurik ez, nirekin?”, galdetu nizun. “Edo sexurik ez?”, erantsi nuen.

“Non dago aldea?”, zuk.

Zureak behar du beti azkeneko hitza.

Galdera baldin bada ere bai.

Laguna

Lagun batekin afaltzen izan nintzen denbora asko ez dela. Beti bezalakoxea zegoela esanda besarkatu nuen. Ez garela gazterik hilko onartzen dugun adin horretatik aurrera horixe da lagunok elkarri esan geniezaiokeen gezurrik xamurrena. Beti bezalakoxea. Izenondorik gabe. Arriskutsuegiak bihurtzen dira denak. Edozeinek honda dezake mezua. Eta ondorioz, afaria.

Gezurra ere ez zen. Beti bezalakoxea zegoen, itxura gorabehera.

Gaiztakeriatan hustu genuen ardo botila, ez genuela gehiago egingo hitz emanarazten nion arren aldiro. Aje handia uzten du gaiztakeriak.

– Zerotik hasterik balego... –bota zuen azkenean.

Ez zen lehendabiziko aldia. Esaldi haren ondoren etortzen zen azken abenturaren amaiera patetikoaren kontakizuna. Negarrez bukatzen zuen eta nik barrez. Gero eskura zeukan edozer botatzen zidan harrika, “Zurekin ez dago serio hitz egiterik”, eta “Zer?, gintonica?”, galdetzen zuen serbilletarekin malkoak lehortu ondoren.

– Zerotik hasterik balego...

Ez zuen segi, ordea.

Ez zen zotinik izan, ez aldiro harritzen nauen negar-jario ikusgarririk, ez “rimela korritu zait?”rik. Isilik geratu zen. Eta ni, tuntun halakoa, bikiak unibertsitatean matrikulatzeko pasatutako tripako minei buruzko amaierarik gabeko bakarrizketa batean murgildu nintzen.

– Asko akordatzen naiz zure esaldi famatu hartaz –erantsi zuen, ura behar nuela-eta isildu nintzenean.

Ez nekien ze esaldiz ari zen.

– Zure gidoia ondo interpretatuko duen protagonista topatzeari deitzen diozu zuk maitasuna, akordatzen?

Une hartan ez nuen gogoan. Baina hala uste dut oraindik.

Ez genuen gintonic-ik eskatu.

Haren anaiak idatzi dit goizean bihotzekoak eman diola jakinarazteko. Ez dakitela aterako ote den. Eta ateraz gero ere.

Inguratu egin behar nuke, esaldiak bigarren zatia duela argitzera: “Horregatik uste duzu gehiegitan mai-

temindu zarela eta gutxiegi maite izan zaituztela. Juxtu aldrebes denean”. Baina ez da momentua.

Hurrengo afarian.

Separazioa

Inbidia pizteko moduko bikote horietakoa osatzen zuten. Hain artetsua bat, hain buruargia bestea. Hain adeitsuak, langileak, arduratsuak, zentzudunak biak. Hain planta onekoak. Hain ederrak eta zintzoak semealabak. Hain jatorrak bizilagunekin, hain diskretuak eta, aldi berean, hain jendartekoak. Hain dena.

Apartatzekoak zirela zabaldu zenean, eskuak burura eraman zituen batek baino gehiagok. Ez ziren hainbeste aztoratuko iturritik uraren ordez esnea zetorrela entzunda. Handiren bat gertatuko zitzaien apartatu ez ezik dibortzioa ere hain azkar adosteko. Langabeziarena iradoki zuen bakarren batek. Krisi garaiotan, ez da erraza, ea bietakoren bat lanik gabe geratu den, eta horrek dena ondo joan izan zaionari beste mundu bat zabaltzen dio bat-batean, tentsioak, eztabaidak, une zailetan badakizu. Zenbat halako. Baina hauek? Ez da sinistekoa. Ze, albistea konfirmatua zegoen. Ez zen zurrumurrua. Dibortzio paperak sinatzerakoan, kasualitateak zer diren, abokatuaren bulegoan idazkari aritzen zen auzotar batek jarri zien dibortzio akordioaren kopia bana parean. “Neronek. Hau

zuk sinatu beharrekoa da, hemen, hemen eta hemen, eta beste hau zuk. Ni lekuko”. Irribarretsu sinatu omen zituzten, gainera, zegozkien orrialde guztiak.

Eta dibortziatuta ere bikote ohi eredugarria izaten jarraitu zuten. Hain artetsua bat, hain buruargia bestea. Hain adeitsuak, langileak, arduratsuak, zentzudunak biak. Eta hain zibilizatuak.

Umeek etxe berean jarraitu zuten, eta banandu berriak txandaka geratzen ziren bertan. Zaintzaren ardurarik ez zuena alboko auzoan erosi zuten etxebizitzan geratzen zen. Edozein egunetan ikus zitekeen bat ez bazen bestea umeekin etxeratzen, txanda egokitu edo ez. Elkarrekin joaten ziren sarri umeen partidueta-ra, beti eskolako bileretara edo ikuskizunetara eta baita noizbehinka egun-pasa ere.

Albistea bere garaian bezain azkar hedatu zen urte batzuetara zurrumurrua. Senar ohiak emazte ohia salatu zuen Ogasunari iruzur egiteagatik. Deklaratzera deitu zituztenean batek bestea jo omen zuen errudun. Apartatuta zeramatzaten hamar urteetan irabazitakoarekin auto berri bana eta bi etxebizitza erosi omen zituzten, hondartzan bat, mendian bestea. Senar ohiak kontzientzia arazoak aitortu zituen salaketa jartzerakoan. Emazte ohiak senarrari leporatu

zion iruzurra. Ez zegoela bera konforme, baina hura ez zapuzteagatik onartu omen zuen banandu eta adin txikiko seme-alaben zamagatik zegozkien laguntzak eskatzeko aukera.

Auzotarrek ezin zuten ulertu. Lanpostu onak zituzten. Zenbat ordainduko du ba administrazioak halako kasu batean? Orain, gu guztion aurrean gezurretan bizitzeko lotsarik izan ez duenak, ze arazo izango du ba paper batzuetan beste gezurren bat edo beste esateko? Jakitera ze tranpa egin dituzten. Bi etxe! Bi etxe oporretarako, hemen bertan dituzten biez gain. Ze nezesidade, ordea? Beste baten ustez horixe zen benetan bikote eredugarria: elkarrekin negozioa egiteko gai dena. Zer da ba bikote eredugarria, gainontzean?

Auzotarren miresmen galerak ez du inolako eraginik izan bikote ohiaren egunerokoan. Epaiketa iritsi bitartean badute nahikoa lan waxap jaurtiketan. Nork punteria hobea.

– Kasketa batengatik dena popatik hartzera bidali duzu! Babua halakoa.

– Hondartzako etxea ez zen bekadunarekin popatik hartzeko, laztana.

Memoria

Bufanda eta memoria ez dira gauza bera! Halaxe atera zait. Beste mahaietako afaltiar bat baino gehiago jiratu da purrustaka irten naizenean. Ez dira gauza bera. Eta kokoteraino nago nire burmuineko zuloak bere erara biltzen dituen lagunaz. Nire garuna nirea da. Eta bertan trikotatzen dut memoria. Puntuak galduz batzuetan, gehiegi erantsiz beste batzuetan. Baina ez diot inori eman baimenik nire oroitzapenen bufandari galdutako puntuak eransteko.

Esateko neukan.

Ez dut inoiz ikasi galdutako puntuak behar bezala biltzen. Erraza zela errepikatzen zigun izebak, laguntza eske joandakoan zalaparta batean orratzak eskutatik kendu eta gaizki emandako urratsak zuzentzen zituen bitartean. Gu jabetzerako ekartzen zuen bere onera hogeita hamabirekin hasi eta hogeita bederatzira murriztuta zetorren bufandaren lerroa. Kontrakoa ere bai noizbait. Nahigabe hogeita hamalaura zabaldutakoa. Gutxiago kostatzen zitzaion egitea nola egin hitzez argitzea baino. Ezkerrera bi, bat hartu, atzera, bestea aurrera, azpitik sartu, atzekoz aurrera ekarri,

ikusten zeinen erraz?, eta hala, gure puntu-lanek ez zuten puntu galdurik izaten izeba alboan zenean. Sobrakorik ere ez. Eta guk harro trikotatzen genituen, eta lagunei oparitzen, muturretan eta erdian zabalera bera zuten bufandak.

Urtean bitan elkartzen gara udalekuetako dozena erdi bat lagun. Azkenekoz begirale egon ginenetik hogeita bost pasatuak ziren aitzakian hasi ginen. Urteek ez gaituztela aldatzen erakutsi ziguten aurreneko bi juntadizoek. Zahartu bakarrik. Hirugarren juntadizoan hogeita bost urte lehenago esan gabeko pare bat kontu mahai gaineratu zituzten. Garaian garaikoak duen garrantziaz ikasteko balio besterik ez, baina keba!, gero eta mataza lodiagoetan korapilatu ginen. Ez nintzela gehiago agertuko esan arren, azkenekora ere joan egin nintzen.

Kontua da afaltiarretako batek argazki zahar bat ekarri zuela. Zaharra, ezinbestean, udalekuetan ume ginen garaikoa. Haietako bat seinalatuz, ea gutakoren batek gogoratzen ote zuen jakin nahi. Mutil kozkor bat, rubioxka, lehendabiziko ilaran eserita, kamixeta arraiaduna, galtzerdiak belaun pareraino eta kamerari begira. Atentzioa ematen zuen taldean. Seriotasunagatik.

Batek Peru ote zen (Bolivian auto istripuz hil zen Peru? Baita zera ere! Hura inoiz ikusi al zenuten serio?); besteak Marianen anaia ematen zuela (bai, horixe! Marian baino hiru urte gazteagoa zen-eta!; hemen Marian, mutiko hau adin bertsukoa da, zaharragoa ez bada); hurrengoak norbait gogorarazten ote zion, Martin?, abokatua? (hura bezain serioa bai, bai gizon tristea! Aurreko batean ere kasurik ez egiteagatik espaloiez aldatu zen); graduazioa aldatu beharko zuela, antiojoekin ere ez zuela behar bezain ondo ikusten esan zuen nire albokoak. Nik jaso ahala pasatu nion argazkia jabeari. Ideiarik ere ez.

– Ez diozu begiratu ere egin!

Haserre zegoela iruditu zitzaidan. Ardo kopa bete nion, bake bila.

– Ez esan ideiarik ere ez daukazula! Zuk ondo ezagutu behar zenuke!

Ez zen txantxetarako unea. Azkar konturatu nintzen. Berriz ere argazkiari heldu eta mutil kozkorrari begira geratu nintzen.

– Ez dakit ba, neska! Ez zait ezaguna egiten. Eta ez naiz bakarra, ikusten dudanez. Denok ez dugu zurea bezalako memoria pribilegiatua! Zenbat urte izango ditugu hemen?

Hamabi. Gehienok hamabi. Nik bete gabe artean, udazkenekoa naizelako, eta rubioxkak hamahiru paseak. Taldeko nagusiena. Errepikatzailea zen.

– Ez al dizu horrek ezer esaten?

Beste guztiak isilik zeuden, laguntza behar nabarmenean nengoen arren.

– Ba, ez. Eta barkatu, baina ez zait batere gustatzen galdetzeko zure modua. Errudun sentiarazten nauzu, batek daki noizko argazki zahar bateko nerabe hori nor den gogoratzeko gai ez naizelako!

Umetan puntua galdutakoan izebak orratzak bezala kendu zidan eskuetatik argazkia eta hari begira kontatu zidan ahopeka, baina afaltiar guztiek argi entzuteko moduan, mutil serio hura nirekin itsututa egon zela ezagutu nindu enetik. Marraztu egiten omen zuen oso ondo. Eta tarteka marrazkiren bat bidaltzen omen zidan postaz.

– Nola dakizu zuk hori?

Erakutsi egin niolako bakarren bat. Eta nik ez bezala, hark esan ere bai marrazkilariari zeinen ona iruditzen zitzaion. Nik eskerrak ere ez.

– Andres zuen izena. Zuk gogoratu behar zenuke. Despedida gutuna ere idatzi zizun, hamabostekin, trenbidera salto egin aurretik.

Ez da Andresik nire oroitzapenetan. Eta ez nago nire puntuzko memoria beste inoren orratzez eraikitzen uzteko prest. Izebak bakarrik zuen eskubide hori. Eta aspaldi ez dago gure artean.

Belarria

Mutilak ez zuen *musikari* hitza aipatu. Jakintzat jo zuen neskak, esan zionean belarri fina izateak ahalbidetzen ziola hileroko soldata. Ez zion musikaz hitz egin. Beti gauez egiten zuela lan erantsi zuenean, ordea, bere ustea berretsita oheratu zen. Pozik. Musikari bat ezagutu zuen. Ilusionatuta etzan zen. Egunen batean espreski beretzat kantu bat (edo gehiago) sortuko zuen musikariarekin zuen hitzordua.

Astebururako geratu baitziren.

Belarri finaren aipamena ez zen ezerezetik sortu. Komunean egin zuten topo lehendabizikoz.

– Inoiz entzun dudan oin hotsik erakargarriena da zurea –esan zion musikariak.

Halakorik entzun gabea zen neska.

– Axola zaizu niretzat beste joan-etorri bat egitea?

– Axola zaizu komunetik bueltan bada? –pixaguraz akabatzen baitzegoen.

Presaka sartu zen komunean. Zalantza sortu zitzaion presak bihurtu ote zion oin hotsa hain erakargarri.

Ezetz argitu zion gero musikariak. Ez zela erritmoa haren arreta erakarri zuena. Ibilarazi egin zuen.

– Ez da ba izango oinetakoengatik?

Erantzarazi egin zizkion mutilak. Oinutsik ez zuen halako hotsik ateratzen. Eta hala ere:

– Ez nenbilen oker. Gutxitan huts egiten dit belarriak.

Paseatzen igaro zuten gaua. Espaloietan eta hondartzan. Belarretan eta harri-txintxarretan.

– Harritu egingo zinateke oin hotsek pertsonari buruz zenbat esaten duten.

Hormigoizko eskaileretan gora, harrizkoetan behera.

– Nireek zer esaten dizute ba?

– Suertekoa naizela zu ezagututa.

Orduan kontatu zion belarri fina ezinbestekoa zuela bere lanbidean eta beti gauez lan egiten zuela.

Biharamunean ispilu aurrean atzera eta aurrera ibili zen neska. Oinetako desberdinekin. Oraintxe pausaje geldoan, oraintxe pausaje sendoz. Baita saltoka ere.

– Lurzorua zulatuko duzu, umea! –izutu zen ama, alabari ibiltzeko sartu zitzaion furia hark harrituta.

Ordua baino lehen iritsi ziren hitzordura. Urrutitik ikusi zuen. Musikari aulkian eserita zeukan zain. Begiak itxita. Arrimatu zenerako zabaldu zituen irribarrez.

– Seguru nengoen zu zinela. Ez dut batere zalantzarik izan.

Bata bestearen ondoan, belarria bihotzaren gainean jarrita pasatu zuten ia arratsalde osoa. Elkarrena entzuten.

– Soinu zoragarriak egiten ditu zureak.

– Zertan dira zoragarriak?

– Ez da erraza esplikatzen.

– Ez diot ba nik zureari musikarik topatzen. Taptap txiki bat besterik ez.

– Desioaren musika ulertzen ez dakizun seinale. Jarriko zara.

Halako gauzak esaten zizkion. Eta bai. Musika hitza agertu zen bien arteko solasetan. Ez espero bezala, baina denbora kontua zen.

Ezpaina ezpainaren kontra ezin izan zuten muxuen musikaz hitz egin. Baina adi egon zen neska, inoiz ez bezala, zaratatxoak aztertzen. Ez zitzaizkion

oso atseginak iruditu, baina bere musikariak merezi zuen hainbesteko ahalegina.

Lagunei jakinarazi zien ezagutu berri zuen musikari batekin txoratzen hasita zegoela. Mezu zaparrada jaso zuen bueltan: denek jakin nahi zuten nor zen, ze taldetakoa, gitarra jotzailea edo abeslaria ote zen, eta batez ere, ezaguna al zen. Oraindik ezetz erantzun zien. Baina zerbaitek esaten zion urrutira iritsiko zela. Izar handiek bezala hitz egiten zuen. Inoiz entzundako gauzarik ederrenak esaten zizkion. Eta benetako izarrak bezain umila zen. Sortzen zuen musika ere ez zion aipatu. Ez eta taldearen izena ere. Nahiago zuen belarria bere oin hotsetara, bihotzera, sabelera jarri, handikeriatan hasi baino. Artistak halakoa behar zuen. Bere mundu propioaren babesle. Seguru zegoen ez ziola ezer esango beretzat kantu aproposa egin arte. Orduan kontatuko zion dena. Une harekin amets egiten zuen neskak.

Nolanahi ere ez zuen presarik. Ez du erraza behar kantu bat egiteak. Lagunak zain zeuden, ordea, eta berantetsita galdera bera errepikatzen zioten momenturo: eta zure kantua? Eskaini al dizu? Zure izena jarri al dio? Zintzilikatuko duzu youtuben, ezta?

Berriro ezetz ez erantzuteagatik egin zion hitzerdi musikariari.

Elkarrizketa honako hau izan zen hitzez hitz.

– Lagun guztiak jakinminez dauzkat zure lanbide misteriotsu horrekin...

– Misteriotsua? Ez da ohikoena, baina misteriotsua denik ere ez nuke esango –(Ze diskretoa!).

– Eta zergatik ez nauzu egun batean gonbidatzen? Gauak libre ditut nik. Hartara neuk erabakiko dut misteriotsua den ala ez.

– Gonbidatu lanera? Lanera etorri nahi al duzu nirekin? –(Ze apala!).

– Gustura joango nintzateke, bai.

– Ez dakizu zer esaten ari zaren. Aspertu egingo zara –(Ze ulerkorra!).

– Ez dut uste.

– Nahi duzun bezala. Klaustrofobiarik ez daukazu, noski... –(Ze atentoa!).

– Nik dakidala ez.

– Arazorik ez orduan. Hiriko zulo guztiak korritzen ditugu. Hori esan beharra daukat –(Ze lotsatia!).

– Ezagutzeko irrikan nago. Ze paper jokatzen duzu zuk taldean?

– Arduradun bat daukagu. Baina denok gara beharrezkoak. Bakoitzak egiten du bere ibilbidea –(Ze sintzeroa!).

– Baina elkarrekin.

– Hori da. Emaitza onak lortzeko elkarrekin jardun behar –(Ze zentzuduna!).

– Zein da zure instrumentua?

– Belarria nagusiki. Ez da sekretua, ezta? –(Ze zoragarria!).

– Ez, baina belarriaz gain?

– Kaxa bat ere erabiltzen dut. Bibrazioak jasotzen ditu. Erakutsiko dizut nola funtzionatzen duen –(Ze begiak!).

– Denen aurrean?

– Bai, jakina –(Ze ezpainak!).

Elkarrizketa hau izan ondorengo egunetan bere burua irudikatu zuen zulo haietako batean, fokupean. Argiaren kolorea aldatuko zioten bere musikariari, zaleei mesedez isiltzeko eskatu eta kantu berri bat aurkeztu nahi ziela esaterakoan. Kantu berria eta berezia, munduko oin hotsik erakargarriena zuen neskarentzat espreski egina. Eta bateria astintzen hasiko zen. Bere kaxa bibratzailea. Begira. Ez zuen espero bateria izatea. Ustekabean harrapatu zuen aitorpenak. Gitarra

jotzaile ikusten zuen. Baina ondo pentsatuz gero hobeto zetorkion bateria. Irudikatze hutsarekin hunkitzen zen. Ensaiatu beharko zuen ze aurpegi jarri momentua iristen zenerako. Edo beharbada ez. Gertatzen utzi.

Jantzi egokia aukeratzeko ere egunak behar izan zituen. Ezin erabaki. Ez zen nabarmenkerien zale, baina jarraitzaileen aurrean ez zuen pertsona korriente bat bezala agertu nahi. Eta batez ere, musikaria harro egotea desio zuen. Kantu berria egiten pasatako denborak merezi izan zuela sentitzea. Ezin zion hutsik egin.

– Ze dotore! –txistu egin zion elkartu zirenean–. Dotoreegi ez ote zaren jarri estolda zuloetarako.

– Talde ospetsuak ere zuloetan hasitakoak dira. Ez kezkatu horregatik.

– Txantxa zen, izango dugu zuretzako moduko buzoren bat.

Buzoaren aipamena ez zuen ulertu, musikaria taldekideekin elkartu eta buzoak partitu zituzten arte. Handi xamarra geratzen zitzaion aukeratu ziotena, baina galtza barrenak jiratuta balekoa zen. Uniforme originala iritzi zion. Musikaren langileak ziren haiek. Arrakasta lantzen hasi berriak.

Estolda-zulotik behera jaitsi zirenean ere, estolda-zulotik behera jaisten ari zirela jakitun, ez zuen baztertu bide hura musika lokalen baten atzeko aldera azaltzeko izango zen ustea. Hain zen zirraragarria.

Hiriaren azpira iritsitakoan eman zizkion musikariak ordura arteko argibiderik zehatzenak.

– Adi hemendik aurrera. Adi, eta isilik. Isiltasuna beharrezkoa da ur-hodietako isuriak entzuteko. Hoditerian matxura larriak gertatu baino lehen antzematea da gure ardura, eta triskantzaren bat gertatu baino lehen konpontzeko modukoak diren bitartean hautematea. Entzuten? Zurrumurru hori urak egiten du. Hodi guztiek ur-soinu bera dutela irudituko zaizu gaur, baina denborarekin ikasiko zenuke zuk ere bereizten. Eta gure belarrietarako ia entzunezinak direnak bibrazio kaxa honek erakutsi egiten dizkigu. Guretzat entzunezina dena pantailan agertzen da. Ikusten? Ez da hain misteriotsua, konturatuko zarenez, baina gustatzen zait zuri hala iruditzea. Inork ez zidan orain arte zurea adinako interesik agertu. Zatoz. Jarri belarria hemen. Ea zer entzuten duzun!

Pena

Robertok pena eman dizula esateko deitu didazu.

Onak dira. Merezi izan du haraino joateak. Gustura entzun dituzu. Aurreneko kantutik azkenekora, gainera. Bikotearen emanaldien loturak jaso ditut sakelakoan kontzertuak iraun duen bitartean. Biok aldi berean entzuteko gonbita. Zuk, zuzenean. Bulegotik, nik.

Zuzenekoa amaitutakoan etorri da deia. Diskoak erosi ondoren. Robertori berari. Hantxe, Patriciarekin grabatuak dituen diskoz betetako kaxez inguratuta. Metro gutxitara behar du Patriciak. Bista inguru hartatik erretiratu gabe eman dizkizu eskerrak diskoak erosteagatik. Automata bat bezala. Zeuk ere Patriciak behar duen aldera begiratuz ona dela esan diozu. “Nire neska da”, esan dizu. Eta zuk ahots partikularra duela, kantaera pertsonala erantsi duzu. “Ikusi besterik ez dago ze isiltasun aretoan hura kantuan hasi denean”. Neska horrek zerbait ukitzen duela eta astintzen, eta jendaurrean nola husten den ikustea hunkigarria dela. “Nire neska da”, errepikatu dizu.

Ea zergatik ez diren saiatzen diskoetxeren batekin disko-zamaketan ibili beharrean. Bizimodu errazagoa

izango lukete. Seguru zaude batek baino gehiagok hartuko lituzkeela euren babespean. Baietz erantzun dizu. “Batek baino gehiagok”. Baina nahiago horrela. Euren kasa. Beti egin izan dute horrela. Diskoak batetik bestera eramatea ez da hainbesteko lana. “Askatasuna garrantzitsua da guretzat”.

Patricia ez da ikusten Roberto eta biok zaudeten tokitik. Inguratuta jarraitzen du. Minutu batzuk lehenago areto txikian zabaldu duen liluraren oihartzunak biltzen ari da. Lurrean orain. Miresmena ukitzen. Aurrez aurre ditu kantuan konkistatu dituenak. Robertok diskoak saltzen dituen bitartean.

Saiatu dira, pentsatu duzu. Ez dizu Robertok hitzez hitz halakorik esan, baina ondo dakizu diskoetxe handiek nola jokatzen duten. Honezkero begiz jo dute Patricia. Eta hura nahiko dute. Eta hura nahikoa dute. Patricia bakarrik. Atzera-kargarik gabe. Haren talentua erosteko prest azalduko ziren. Roberto asko dago munduan. Patriciak ere bai, jakina. Baina ez hainbeste. Erraz topatuko diote neurriko Robertoren bat haien eskaintza onartzen duenean. Eta orduan egingo du hegan haren ahotsak. Mundu osora.

“Nire neska da. Patricia. Elkarrekin gaude. Bion artean egiten ditugu kantuak. Bestela ez du zentzurik”.

Bakarrik utzi duzu. Elkarrekin egiten dituzten diskoz inguratuta. Bakardadean aske.

Eta deitu egin didazu. Robertok pena eman dizula esateko. Eta kantuak entzun ote ditudan galdetzeko. Eta ea ze irudipen.

Behar duzu oraindik nire iritzia, “Bai, oso onak dira, hala iruditu zaizkit, neska aparta, aspaldian entzun dudan ahotsik distiratsuena, kantaera zoragarria eta jendaurreko jarrera zer esanik ez”. Eta ez duzula entzun nahi jakin arren esan egin dizut: bikote orekatua osatzen dute, elkarri nola begiratzen dioten ikusi besterik ez dago. Elkarren beharra dute magia sortzeko.

Behar nauzu oraindik, Patriciari ukatu ezingo duen eskaintza egiten diozun unean zure jokaera ez dela besteena bezalakoa sinisteko. Zuri Robertok pena eman dizu. Bozgoraz errepikatzeak penari beste estatus bat ematen dio. Benetakoagoa bihurtzen duela uste duzu. Eta oraindik geratzen zaizun kontzientzia apurra lasaitzen laguntzen dizu. Zuk ez dakizu zer etorkizun izango duen Patriciak. Nork daki. Baina Robertori lapurtu egingo diozu izan dezakeena. Momentuz biek elkarrekin izan dezaketena behintzat, nabar-

men, eta jakinaren gainean. Eta badakizu, onartuko ez didazun arren.

Horregatik deitzen didazu oraindik. Gu bion artean eraikitako proiektua utzi eta zeure etorkizuna hobetzeko eskaintza onartu zenuen momentuan –bolada baterako izango da–, mesedez, ez gehiago deitzeko eskatu nizun arren.

Aterkia

–Ez dakit laguntzeko modurik izango ote zenukeen.

– Zertan?

– Galdutako gauzen bulegoan egiten dut lan. Gutun hau ekarri digute eta pentsatu dut beharbada zuek errazago bideratuko duzuela guk baino.

“Probatu al duzu seilua jarri eta bidaltzea?” galdetzekotan egon zen postaria. Baina ume baten letra zuen gutunazalak. Emakumea umezalea izango zela pentsatu zuen. Gustatu egin zitzaion. Eta gutunazala beregana hurbiltzeko aitzakia izan zitekeela iruditu zitzaion. Hori ere bai. Begiratzeko moduagatik.

– Nire kontu.

– Bat zor. Galdutako gauzen bulegoan aurkituko nauzu.

– Ahaztutako gauzen bulegoa behar luke.

Irribarre egin zion emakumeak. Norberarena uste den pentsamendua ezezagun baten ahotan entzuteak sortzen duen konplizitatez.

– Azaldu nahi duzunean!

– Galtzen banaiz azalduko naiz beharbada.

Azaldu zen denbora batera.

– Aterki honek aste pare bat darama posta bulegoan, eta ez da inor azaldu galdezka. Badaezpada zuen bulegora ekartzea erabaki dut.

– Aitzakia polita topatu duzu.

– Ez da aitzakia: aterkia da!

Beste behin azaldu zen emakumea posta bulegoan, ea gutun galduaren berririk izan ote zuten galdetzera.

– Ez dute behintzat itzuli. Ez da seinale txarra.

Galdutako gauzen bulegoan xamurtasunez begiratu zion emakumeak ehunka aterkiren artean postariak ekarritakoari. Ez zen inor agertu haren bila.

Postaria ere ez galdezka.

Denborarekin emakumeak ahaztu egingo du nork ekarritakoa den.

Haserrea

Lau astez auzoko neska koxkor haren bila ibili eta azkenean hilda aurkitu zutela jakindakoan, alabari mikrotxipa jartzea erabaki zuen amak.

Segurtasun enpresakoek agindu diote bost minutu nahikoa izango dituztela alabaren gorpua aurkitzeko.

Aita haserre dago, zer irudituko ote litzaiokeen galdetu ere egin gabe amak zortzi urteko umeari zilborrean piercinga jarri dionetik.

Ezpainak

Ezpainak mugitzen ditu elkarren ondoan etzanda gaudenean.

Soinutxoak egiten ditu batzuetan. Mñmñz mzñ edo tltlm prtlrrst. Baina oso baxu. Zentimetro batera zerbait-zerbait entzuteko moduan.

Etengabe bere buruarekin elkarrizketan ari dela ematen du. Edo eztabaidan. Oraintxe alde, oraintxe kontra.

Ezpainak irakurtzen ikastera animatu nintzen. Lehendabiziko egunean eskola kideen aurrean ikastaroan izena emateko bakoitzak bere arrazoiak aitortzeko orduan ezkutatu egin nuen nirea. Arrazoi profesionalak. Eskerrak ez zidan inork galdetu lanbideaz. Ezin nuen esan larrutan egin ondorengo hitz-aspertu hura obsesio bihurtzen ari zitzaidanik.

Isildu gabe jarduten du. Egon izan naiz luzaroan begira. Eta hura berean. “Ezpainak mugitzen dituzu” entzun arte. Orduan eteten du bakarrizketa mutua. “Eta zer entzuten da?”. Soinutxoak batzuetan. Eta nik

jakin egin nahi soinutxo haiek zer esaten duten. Jakin egin nahi zer pentsatzen duen larrua jo ondoren.

Zer moduz galdetuz gero erantzun ederrak ematen dizkit. Ni pozteko pentsatuak. Ez nau asetzen, ordea. Badakit handia dela zurekin zoriontsu izan denak zurekin zoriontsu izan dela erakusteko ahalegina egitea bera. Baina ez dut ahaleginik nahi. Nirekin zoriontsu sentitzea nahi dut. Eta hori egiaztatzeko modu bakarra ezpainak irakurtzea dut. Inork ez du bere burua engainatzen.

Uste baino zailagoa da ezpainak irakurtzea. Irakaslearenak ez direnean ia ezinezko. Saiatu zen hura ulertarazten ezpainekin ez dugula idazten. Gutxi gorabehera harrapatu behar direla mugimenduak. Asko aldatzen dela ahoaren forma tonuaren arabera. Hobea dela esaldi luzeei erreparatzea, hitz solteei baino, eta esanahiak kontestuaren arabera ulertzen saiatzea. Gehiago esango digula askotan aurpegiko keinu batek ezpain mugimendu jakin batek baino. Eta aholku orokor modura, ez lotsatzeko, eta esateko lasai hizketan ari zaigunari, mantsotzeko mesedez hizketa, guk ulertu ahal izateko. Azken aholkuak zapuztu zituen nire

ametsak. Sekula ez diot halakorik eskatuko. Ez dit niri hitz egiten. Ez du nik ulertzerik nahi. Pentsamenduak iristen zaizkio ahoraino, eta hantxe geratu.

Ikasitako apurrarekin saiatu naiz pare bat aldiz: ezin, ahaztu gabe, deituko, giltzak eta kaka zaharra, hitzok ulertu uste ditut. Ziurtasunik ez, ordea, eta batez ere, informaziorik ez. Halako zerrendekin sekula ez dut ondorio fidagarririk aterako gure jardunaz pentsatzen duenaz.

Gaur kontatu egin diot beste kamioizale bati. Afal ondorengo zigarroa erretzen ari nintzen kabinara erretiratu aurretik eta su eske arrimatu zait. Nire ezpainei begira harrapatu dudalako hasi naizela uste dut hizketan. Eta ez dudalako gehiago topatuko ere bai. Kasualitate handia behar luke berriz ere atsedengune berean geratzea. Ez du nire bakarrizketa eten. Beste zigarro bat piztu dudanean, bere kamioiko kabina seinalatu dit. Bi izen ditu kristalean letra larriz alderik alde: Yevtsie i Kejan. Kamioizalea ez dago haiei begira, ordea. Ez ditu haiek gogoan ezpainak luzatuta edozein hizkuntzatan soinurik gabe ere ulertzeko moduko keinua egin didanean.

Galdera

“Zenbat jende ezagutzen duzu neanderthal jaio berriek bizirauteko behar zuten energiari buruz pasioz hitz egiteko gai dena?”.

Ez zen erantzunaren zain geratu. Ez da inoiz izan erantzunaren zain geratzekoa.

Tren geltokira irribarretsu iristen zenetan ere ez. “Ze apustu bidaia ona izan duzula!” esanez inguratu eta besarkatzen ninduen, “baietz?”. Orduan uste nuen galderak baino desioak zirela. Eta nik ahalegin ikaragarria egiten nuen haren desioak betetzeko. “Jende asko ezagutuko zenuen kongresuan seguru, eta denak txundituta utzi dituzula zure buru argiarekin?”. Garaitsu hartan baietz erantzutea beste gogorik ez nuen. Galdera edozein zela ere. Bai, bai, bai. Denari bai.

Galderak ez dira beti izan erantzun bakarreko. Izan dira tartean erantzuna aukeran utzi didatenak ere: “Udan edo neguan ezkondu nahi duzu?”. Benetako aukerarik gabeko aukeraren bat ere bai noiz edo noiz: “Non biziko gara? Hiriguneko etxebizitza eskas batean ito beharrean edo hirigunetik kanpo zure ikerketekin

eroso jarraitzeko nahikoa toki duen etxalderen batean?”.

Maitasuna zela uste nuen. Uste nuen maitasuna zela zure erantzun guztiak ezagutzen dituenarekin bizitza konpartitzea.

Galdera bakoitzari bere erantzuna erantsiz joan zaigu bizitza. Bi seme eta alaba: “Ez daukat ezer mutilen kontra, baina zuk ere alabatxoa nahi duzu, ezta?”. Bigarren etxebizitza: “Ondo etorriko litzaiekeela itsas ertzeko airea?”. Amaginarrebaren iritsiera: “Konturatzen zara bakardadea zeinen gauza beldurgarria den, baietz?”. Bi astetarako etorri eta hamarkada gurekin geratu arren, eroso sentitzen nintzen erabakiak bere kasa hartu eta ondorioen ardura partekatzeko bakarrik galdetzen zuenaren alboan.

Berak galdetzen zuen eta nigatik erantzuten. Bion izenean. Eta hala, nik nirean jarrai nezakeen: galderarik gabe. Eta berak, gurean: erantzun eta guzti.

Barre egin zuen elkarrizketa baterako deitu zidatela esan nionean. Laguntzea nahi ote nuen, kazetari gizajoak ez zezan gehiegi sufritu nire erantzunen zain. “Gajoak”, zuzendu nion. “Eta? Zer aldatzen du horrek? Ez didazu esango zure jarrera desberdina izango dela!

Gizajo edo gajo, gizajoago edo gajoago bihurtuko da zure ahotik erantzunen bat espero badu!”.

Ez zen gajoa. Galdetu eta erantzunaren zain geratzen zen.

Nire ikerketen aurrerapenez hitz egin nion. Akatsarrisku ia antzemanezinezkoarekin hazkundea kalkulatzeko garatutako matematika formulaz ere bai. Laborategian igarotako orduez. Hitz egin nion ordura arte bildutako dokumentazioaz. Artean egiteke zegoenaz eta beharrezko jotzen genuenaz. Gurea bezalako egitasmoek erakunde publikoen babesa izateak duen garrantziaz. Landa-lanaz, eta indusketez, eta itzalik eta atsedenik gabeko udako egun luze eta beroez. Hitz egin nion gure ikerketak izan zitzakeen aplikazioez. Hitz egin nion talde-lanaz. Diziplinen arteko komunikazioaz. Nire bidaiez. Lanari eskaintzen nionaz eta zor nionaz.

Isildu nintzenean galdetu zidan: “Eta? zoriontsua al zara?”.

Ez dut gezurrik esaten. Inoiz ez. Taldeko antropologoa lehertu egiten da hori entzuten didanean. Baina egia da. Ez dut gezurrik esaten. Ez dut gogoan inoiz esan izana. Emaztearen galderei ez diet inoiz zehaztasunez erantzun, baina ez da nire aukera izan. Hark

hala nahita baizik. Erantzuna jakiteagatik galdetu izan balit, “Ez al didazu esan behar emakume horrekin maitemindu zarela?”, ezetz erantzungo nion. Ze, ez nuen esateko asmorik. “Ez duzu usteko kazetari txolin batekin nola txolindu zaren aguantatzeko prest nagoenik?” galdetu izan balit ere ezezkoa erantzungo niokeen. “Oheratu al zarete?” galdetu izan balit erantzun posible bakarra utziko zidan. Ez dakit zer erantzungo niokeen “Zer sentitzen duzu emakume horregatik?” edo antzeko galdera irekiren bat eginez gero. Baina ez zidan halakorik galdetu. Ez halakorik, ez besterik ere. Beraz, bolada batez erantzuna entzuteko prest zegoenaren galderei jarri nien arreta.

Ez zuen asko iraun. Nireganako mirespena aitortu zidan. Sexua ez zela gaizki joan gure artean. Eta gero etorri ziren bainak: berak hitz egin beharra sentitzen zuela aurretik eta ondoren, eta baita bitartean ere. Eta hitz egitea bai edo ez-etik haratagoko zerbait zela. Tarteka kontra egingo zion norbait behar zuela berak, eta eztabaidatu ahal izatea, eta barre egitea. Eta erantzunak espero izaten zituela, gezurrak izanda ere. Bestela, ez zuela zentzurik. Saiatu nintzen ordura arte inori kontatu gabeko aurkikuntzekin tentatzen. Detaile askorekin eman nion azken urratsen berri.

“Norbaiten alboan etzaten naizenean, ohearen oinetan uzten dut kazetari trajea”, esan zidan.

Eta argitu, ordurako jantzita, hitz egitea eta lanari buruzko bakarrizketa bi gauza direla.

“Ikusiko zenuen ministerioko laguntza jaso zenuenean elkarrizketa egin zizun kazetariaren liburua erosi dudala, ezta? Literatura egiten omen du orain, entzungo zenuen, noski. Deigarria egiten zait. Zergatik aukeratzen du hainbeste kazetarik fantasia? Edozeinek esango luke errealitateak aspertu egiten dituela”.

Liburua magalean zabalduta aurkitu nuen biharamunean etxeratu nintzenean. Oso esna hain berandu izateko. Gabon esan gabe hasi zen hizketan: “Banengoen ba ni. Kazetariek fantasia! Tuntuna halakoa!”. Ez nuen ulertu zertaz ari zen liburuko orrialde bat errotik aterata harrika bota zidan arte. Hura lurretik jaso eta, galtzontzilloak belaun parean eta galtzerdi zuriak erantzi gabe neanderthal jaio berriek bizirauteko behar zuten energiari buruz pasioz hitz egiten zuen ikerlari hari buruzko kontakizuna irakurri ondoren hartu zuen galderak zentzu osoa: “Zenbat jende ezagutzen duzu neanderthal jaio berriek bizirauteko behar zuten energiari buruz pasioz hitz egiteko gai dena?”.

Irribarrea

Kopetako zimurrik ere ez zaio antzematen kasik. Ondo makillatzen jakitea zer den. Enteratu behar dut nor aritzen den. Begitartekoa kuzkurtu gabe ikusteak inpresionatu nau gehien. Bekozkoa jarrita esnatu eta erantzi gabe oheratzen zen aurpegiko azalari lotarakoan ere tregoarik eman gabe.

Beste bat ematen du. Lasaitzen nau horrek ni ere. Jendetza bilduko da gaur hemen. Komeni da bakean zegoela ikustea. Ez lagun asko zituelako. Horrexegatik agertuko dira beharbada. Bizitan lagun agertzen ez direnek izaten dute maiz azken despedidarako beharrik handiena. Senitartekoak ere ziento bat direla badakit. Familia zabalekoa da. Nik apenas ezagutzen ditudan. Eta hark ere ezetz esango nuke. Herrian bertan bizi den lehengusuren bat ikusi izan dugu tarteka, baina “denak ondo, zuek ere bai” baino konbertsazio luzeagorik ez diet entzun.

Nire ahizpak esan dit bera ere agertuko dela. Kezkatuta dago. “Kezkatuta” da bere egoera zibila. Kezkatuta egon zen urtetan bakarrik geratuko ote nintzen beldur. “Bakardadea gauza tristea da, neska”, errepi-

katzen zidan. Alferrik erantzuten nion, bakardadea baino gauza tristeagoak makina bat ezagutuak ginela. Kezka bat behar du bizitzeko eta ez du bila ibili beharrik izan: ni naiz haren kezka. Horregatik kezkatu zen hainbeste ezkondu egingo ginela esandakoan. Hirurogei urtez bakarrik nengoelako kezkatuta, eta bakarrik ez egoteko urratsa ematekoa nintzela jakindakoan, kezkatuago.

Ez nintzen ezkondu bakarrik ez egoteagatik. Ederki moldatzen naiz ni bakarrik. Baina aukera ez zela baztertzekoa iruditu zitzaidan. Bizilagunak izan gara berrogei urtez. Bigarren pisuan ni, lehendabizikoan bera. Enkargutara nindoan batean, haren etxeko atea zabalduta ikusi, harritu, eta burua sartu nuen ondo ote zegoen galdetzeko. Bizilagunagatik hainbeste egiten irakatsi ziguten guri. Kuartotik sentitu nuen oihua. Ohe ondoan erorita, gizajoa. Ondoezak eman eta irteten ez bazen hantxe geratuko zela konturatuta, aterainо inguratu, ez zela urrutira iritsiko jabetu eta ohera itzultzea bururatu zitzaion. Alboan geratu zen. Oheratzen lagundu eta medikuari deitu nion. Ez nuen haren berririk izan, ingresatuta pare bat aste egin ondoren ate joka etorri zitzaidan arte. Eskerrak emateko igoko

zela uste nuen. Eta hala igo zen. Bere erara. Kartilla luzatu zidan.

– Hauxe daukat, eta etxea ere nirea da. Zuretzat dena, azken hilabeteotan laguntzen baldin badidazu.

Urtea geratzen zitzaiola esan zioten. Bi eta erdi bizi izan gara elkarrekin. Azkenekoa, ezkonduta.

“Bizilagun zakar horrekin?”, izutu zen ahizpa kontatu nionean. “Ipurdia garbitzeko nahi zaitu! Ez al zara konturatzen?”, desesperatu zen. Lasaitu arte ez zidan entzun berak belarriak mintzeraino errepikatutako esaldirik kuttunena: “Hobe alargun, ezkongabe baino”. Ez nengoen ados orain urte batzuk. Kontra egiten nion. Zaharren kontuekin bizi zela gogoratzen nion. Orain ulertu dut zer den alarguna izatea: pisua, eta geratzen zaizkidan urteak estutasunik gabe pasatzeko ziurtasuna edukitzea. “Ipurdia garbitu? Beharko!”. Aber zenbatek duen kolpe zorrik jo gabe hileroko soldata ziurtatzeko modua! Guri hori ezinezkoa zela erakutsi ziguten behintzat.

Kezkatuta dago orain ere eta hala ere, nire ahizpa. Familia osoa agertuko omen da orain eurena uste dutena eskatzera. Alde horretatik lasai nago ni. Paperak ondo eginda dauzkat, agindutako papera ondo beteta eta hemendik aurrerakoa ere halatsu betetzekotan.

Bera ere lasai dago. Irribarre egiteko zorian dagoela ematen du. Hala irudituko zaio jendeari. Heriotzak unerik desegokienean azaltzeko bokazioz ahalegina zapuztu balio bezala.

Telefonoa

Telefonoak jotzen duenean inor ez da sofatik mugitzen etxe gehienetan. Denek dakite bestaldean nahastutako jubilaturen bat, saltzaileren bat edo inkesta-egileren bat izango dela. Horregatik behar izan zuen denboratxo bat goizean goiz txirrin hots arrotz hura entzundakoan etxeko telefonoa zela jabetzeko. Bere etxekoa. Noiztik ote zegoen mutu gogoratu ezin zuen hura bera. Hartu zuenerako ez zen inor: ez nahastutako jubilatua, ez saltzailea, ez inkesta-egilea. Zapuztuta geratu zen aspaldiko partez bainordaka.

Minutu parera deitu zioten berriro ere eta bigarrenez geratu zen hariaren bestaldeko erantzunik gabe, baina ez garaiz iritsi ez zelako, baizik eta deitzaileak ez zuelako hitzik esan han egon arren. Hitza ez da beti ezinbestekoa.

Biharamunean ordu bertsuan esnatu zuen telefonoak. Eta bezperan bezalaxe ez zuen ezer esan bestaldekoak. Arnas hots arin batek salatzen zuen: han zegoen.

– Berriz ere nahastu zara! –esan zion–. Nigatik ez kezkatu. Oraintxe jaikitzekoa nintzen. Faborea egin didazu.

Haserretu zitekeen. Edo kezkatu. Edo biak aldi berean. Baina telefono dei batek ez duela berez kalterik egiten sinistuta, umoretsu erantzun zion handik aurrera goizeroko ezezagunari.

Ohitura batzuek bizialdi bat baino gehiago behar dituzte errotzeko. Beste batzuek, aldiz, nahikoa dute behin errepikatzea ohitura bihurtzeko. Hala gertatu zitzaion deiarekin. Aste batzuetara iruditzen zitzaion betidanik esnatu izan zela ezezagunaren telefono deiari esker. Minutuak gorabehera, ordu berean jotzen zuen telefonoak. On egiten zion. Hori zen harrigarriena. Pozik jaikitzen zen norbait hura egunero berarekin akordatzen zela pentsatuta. Eta poza baino garrantzitsuagoa, itxaropena piztu zion. Egunen batean hitz egingo zion, eta argituko dena. Egun haren zain animoso joaten zitzaizkion egunak. Besteak urratsa eman bitartean, berak kontatu egiten zion. Hasieran, labur. Bezperakoaz, zehaztasun gehiegi eman gabe, badaezpada –ilusionatzea gauza bat da, burua galtzea bestea–, egunerako zituen asmoez edo baita goiko bizilagunarekin izandako azken tirabiraz –ezin zuten

elkar ikusi igogailua jartzerakoan izandako gudaren ondoren– edo gosaltzen ematen zion tabernariaren azken berriez ere. Iruditzen zitzaion lagun ezezagunak barre txikia egiten zuela tarteka. Berak ez zion galderarik egiten. Asko frustratzen zuten airean geratutako galderek.

Ezinbestean etortzen zitzaion tarteka ahotsik gabeko hura imajinatzeko tentazioa. Baztertzen saiatzen zen. Eskarmentuz zekien errealitateak antz gutxi izan ohi duela guk irudikatutakoarekin. Beraz, nahiago aurreiritzirik gabe.

Deiaren arrazoiak asmatzen ere harrapatu izan zuen bere burua noiz edo noiz. Argi zeukan lehendabiziko deia nahastuta egingo zuela. Baina gero, zergatik jarraitu zuen? Grazia egin ote zion? Zerk? Eta ez bazebilen nahastuta? Norekin ari zen jakinaren gainean deitzen bazion? Ez zuen merezi galderetan katramilatzea.

Bazekien etxekoengandik zer entzun beharko zuen: Zu seko jota zaude! Zure bizitza kontatzen diozu ezezagun bati? Ba al dakizu zenbat zoro dagoen bazterretan? Lasaiago zeuden haiek ezjakinean eta bera, zer esanik ez, deiena isilpean gordeta.

Halako batean, gutxien espero zuenean –gauza gehienak gertatzen dira gutxien espero duzunean– hizketan hasi zitzaion. Hipotesi guztien artean huraxe zen ordura arte tokirik gabea: izutu egin zuen ahotsak. Ez zirudien pertsona batena.

Moztu eta telefono konpainiara deitu zuen zenbakia aldatu nahi zuela esateko. Norbaitekin hitz egiteko hirugarren saiakera antzuan, kableari tira eta linea indargabetu zuen.

Ez zuen etxeko telefonoaren beharrik. Total: nahastutako jubilatuek, saltzaileek edo inkesta-egileek bakarrik deitzen dute etxera.

Begirada

Gogoratzerakoan begirada eskuinetara zuzentzen dugu. Asmatzerakoan, ezkerretara. Dokumental batean ikusi genuen aspaldi. Eta mila aldiz irakurri edo entzun, gerora. Nik ez dut gehiago ahaztuko.

Jolas bihurtu genuen bolada batean. Elkarri iraganeko pasadizo bat kontatu eta benetakoa zen edo ez asmatzea zen gakoa. Irabazteko guztiak neuzkan. Itsu-itsuan sinisten zuen zientzialarien hizkuntzan kontatutakoa. Segituan konturatu nintzen eskuinetara begira kontatzen nion edozein astakeria sinisteko prest zegoela eta ezkerretara begirakorik ez zidala aintzat hartzen.

Garbi jokatu nuen hasieran. Errazegi engainatuko nuela ulertarazi nahi nion. Xamurra zen haren inozotasuna, baina ez zen egia gogoan nuen lehendabiziko mutil-laguna urkatu egin zenik utzi egin nuelako. Ez zen egia urkatu zenik, ez eta utzi egin nuenik ere, begirada eskuin aldera galduta kontatu nion arren. Ez zuten asebete nire argibideek.

Bereak asmatzeko, berriz, sasi-zientzia guztiak sobran zeuden. Ez ezkerretara eta ez eskuinetara. Itxi

egiten zituen begiak gezurra esaterakoan, inork ikus ez ditzan umeek eskutxoekin egiten duten bezala.

Ez zegoen nire asmoetan hura engainatzea, baina gogoan dut barre egiten nuela orduan, egunen batean behar izatera zeinen erraza izango zen irudikatuz.

Ez nuen kontuan izan inozoak arriskutsuak direla.

Lan eskaintza berezi batekin hasi zen dena. Goiz osoko argazki saio bakarragatik tabernan urte erdian adina eskaini zidatenean baiezkoa eman nuen. Gezurra esango nuke itxura txarrik ez niola hartu esango banu. Badakit ze prezio duen nire gorputzak. Baina ez nuen nora eta ze ordutarako beste galderarik egin.

Lan-txanda aldatu zidatela kontatu nion bezperan. Afaria prestatzen ari zen. Bizkar emanda ari zen sukaldean. Esango nuke ez nuela apropos egin, baina gerora konturatu naiz argazki saio hartarakoa onartu nuenetik, kontu gutxi esan niola aurrez aurre. Gauzak bere onetik ez ateratzeko, esan dezadan askotan hitz egiten genuela begietara begiratu gabe. Joanean, etorrian, eginkizun desberdinetan ari ginen bitartean, baita egonean ere. Baina zehazki gai hari zegokion ezer ez esateagatik asmatu nituenak, denak, begieta-

tik ondoriorik ez ateratzeko moduan. Besteak beste, ez nengoelako ziur eskuinetara edo ezkerretara, nora zen gezurra. Urteak ziren ez genuela begiradaren jolasa praktikatzen. Seguru nengoen, ordea, hark ez zuela ahaztua. Nire begiradaren norabideari jarraitzen zion, disimuluan ari zelakoan, zerbaitek mesfidantza sortuz gero. Eta mesfidatia zen. Konfiantzaren mikroskopioa gaizki enfokatua izatea, horixe arazoa. Enfokatzen irakastea baino fokupetik ihes egitea errazagoa zenez, haren logikatik kanpo zegoena ez nion aipatzen. Eta akabo susmoak eta dena etengabe zalantzan jartzea eta frogatu ezina zin eginez sinetsarazi beharra. Tabernan lan-txanda aldatu zidaten eta goizetik joan behar nuen. Zertarako hasi begiradaren norabidea zaintzen? Ez nuen ba aurreragoko kezkarik. Galdetu zidan nork, zertarako eta zergatik nintzen hain zintzoa. Ezagutzen ez zuen lankide batek, nik ez dut zertarako galdetzen faborea eskatzen didatenean eta zintzotasuna kode genetikoan nekarren. Gero afaritarako prestatu zuenari buruzko zerbait galdetu, eta kito.

Lokartu ezinik egon nintzen luze. “Kontzientzia txarragatik”, esan zidan esna sumatu ninduenean. “Ze kontzientzia txar?”, nik. “Biharkoagatik”. Ez nion ezer erantzun. “Ez hasi majaderiatan”, erregutu nion.

Loa eguna argitu bitartean uxatzeko ezagutzen dudan sistemarik onena da gauerdiko eztabaida.

Begiak zabaldu nituenerako begira neukan:

– Badakit ni babesteagatik egiten duzula. Estuegia naiz.

Itxi egin nituen.

– Ez daukazu zertan esan zeinek aldatu dizun lantxanda eta, gutxiago, zertarako.

Bakarra ireki nuen.

– Min egiten dit zure konfiantza faltak.

Kopetan muxu eman eta alde egin nuen.

Biluzik aterako zizkidaten argazki guztiak. Hainbeste espero nuen. Jakinmina azaldu nuen arren, ezin zidaten aurreratu ze erabilpen izango zuten. Enkarguz egiten zuten lan eta agindu zehatza jaso zuten: berrogei eta berrogeita hamar urte bitarteko emakume korriente baten gorputza, perspektiba eta distantzia guztietatik, zatika eta osorik. Ezagun batek eman zien nire berri. Posatu beharrik ere ez. Zutik, eserita, makurtuta eta etzanda. Ez mugitzeko esan zidan argazkilariak. Mugituko zela bera. Eta halaxe. Oraintxe oinetara, oraintxe hankartera; gero atzean sumatzen

nuen, bizkarrarekin ariko zen, beranduxeago titi parean; ukabiletan denbora dezente egin zuen, baita belaunburuetan ere. Eta ni, egonean. Argazkilari bat bueltaka eta nik urte erdian barran irabaziko nuena poltsikoan kabituko ote zitzaidan kalkulatzen. Aurpegirik ez zutela behar esan zidaten unetik ezin izan nion irribarreari eutsi. Argazkiak edozertarako zirela ere, inori argibiderik eman beharrik ez. Emakume korrientea izatearen abantailak.

Esku dirutan ordaindu zidaten, gainera. Telefonoz agindutakoa. Boltsoa emozioz lehertuko zitzaidala uste izan nuen. Baina ondo aguantatu zuen etxeraino. Nik ere bai.

“Tabernan izan naiz” esan zidan gabon baino lehen. “Jai eskatu duzula esan didate”.

Begiak itxi nituen. Nora zen oroitzapena? Ezkerretara zen, ezta? Ez. Asmatzen ari garenean begiratzen dugu ezkerretara? Nahita ere ezin nuen gogoratu. Eskerrak bazkalondoan, inoiz gehiago kabituko ez zitzaizkidan galtza bakeroen aurreko poltsikoetan dirua ezkutatu, eta siesta polita egin nuen. Luze joko zuen gauak.

Apustua

Apustu hark ez zuen zentzurik. Edonor jabetuko litzateke horretaz. Baina edonorrik ez zen haien arteko hartuemanean. Euren arteko jolasa zen. Ez zuten inorekin konpartitu. Beraz inork ez zien esan: nori bururatu zaio halako burugabekeria?

Bederatzi urtetan bietako batek “Ez zaitut galdu nahi” esaten zuenean, besteak “Baietz zu aspertu nitaz lehenago” erantzuten zion. Ez dute gogoan bietako nor ausartu zen apustu egiten. Batek bera ezetz esango luke, apustuetarako zera berezirik ez duelako; kontrakoa, izatekotan. Besteak ere ez du ikusten bere burua apustu egiten. Baina adostu zuten apustua galtzen zuenak, alegia, lehendabizi aspertzen zenak ordainduta astebete egingo zutela biek Toscanan. Harrezkero, “Toscana dago jokoan” konplize batez agurtzen ziren, irabazlerik eta galtzailerik ez zela sekula izango sinistuta. Aldentzen zirenetan waxapak, beti Toscana gogoan.

Bietako bat aspertu zen arte. Bakarra. Bere buruari onartzen baino dezentez denbora gehiago behar izan zuen nola esan erabakitzen. Ez zuen bestea

mindu nahi, nolanahi esanda ere mina eragingo ziola jakitun. Bestea jabetuta zegoen ez ziola jada “Ez zaitut galdu nahi” esaten, baina ez zion zergatia sekula galdetu, beldur zelako desio ez zuen erantzuna entzun beharko ote zuen. Azkenean, aspertuta ez ezik aspertzeaz ere zeharo aspertuta zegoenak topatu zuen aspertu hitza aipatu gabe aspertuta zegoela adierazteko modua.

– Noiz joan nahi duzu Toscanara? Bidaia nire kontu.

Galtzailea, hegaldi txartelak eskuetan, garaiz iritsi zen aireportura. Gauerdian bidalia zion mezua gogorarazteko: “Hegazkina bihar lauretan. Aireportuan espero zaitut”.

Irabazlea ez zela agertuko ulertu zuenerako Pisan lur hartzen behar zuen hegazkinak.

Minduta etxeratu zen. Hainbeste urte eta gero halakorik bai ez zuela espero. Hitzez hitz bete zuen berak adostutakoa. Galduta ere konplitu egin zuen. Galtzaile ona zen seinale. Halakoetan erakusten du pertsonak ze giza mailatakoa den. Erraza da irabazlearen tokia.

Distantzia

Hamahiru kilometro ez da distantzia handia bidea autoz egiteko. Urteak zeramatzan egunero egiten. Hamahiru joanean eta beste hainbeste etorrian. Baina burua bidera beharrean barrura jarrita egiteko kilometro gehiegi dira hamahiru. Eta hogeita sei, doblea. Hamahiru kilometro pentsamendu bakarra jiraka. Pentsamendua zen: gaur esango diot, sinfalta.

Abiatu aurretik bide zuzenari irizten zion egokien. Joan eta esan. Lehen bihurgunerako jabetzen zen errazagoa izango zela jirabueltaren batekin. Eta lantoki atarian aparkatzerakoan eguneko lanak amaitu arte gaia ere bertan uzten zuen. Bueltakoan berriro hamahiru kilometro lepagainean kopilotu berberarekin: gaur-en tokian bihar izatea. Horixe aldea.

Esan beharra zeukan zoratuko ez bazen. Begiratze hutsarekin elkarren berri jakiteko adina urte zeramatzaten elkarrekin lanean. Miresten zituzten elkarren dohainak eta barkatzen ahuldadeak. Une zailetan bizkarra eskaintzen zioten elkarri eta bizkarra ematen aldi berean irtenbiderik gabeko eztabaidei. Bata bestearen pozarekin pozten eta tristura erdibanatzen ika-

sita zeuden. Inoiz ez zuten lana amaitutzat jotzen bienak bukatu arte. Eta hori, bat miopea eta bestea hipermetropea zenik. Bat barkabera eta bestea gupidagabea. Bat depositua erdira etorritakoan arrimatzen zen surtidorera, bestea pilotu gorria piztutakoan.

Oraintxe aste parea, kafe baterako gonbita jaso zuen mezu bidez. Hamar aldiz irakurri zuen. Ez zegoen kafetarako gonbitak sakelakoan jasotzen ohituta. Biharamunean “Biok bakarrik. Ez du inork jakin behar” irakurri zuenean konortea galtzeko zorian egon zen, baina geratzen zitzaion odol hotz apurra erabiliz galdetu zion nor zen. Telefono zenbakia ezezaguna zitzaiola. Ez zeukala fitxatuta.

Jakiteak ez zuen lasaitu. Lankidearen senarra zen.

Gizon segaila iruditu zitzaion ezagutu zuenean. Ez zen ausartu atzetik begiratzen. Bazekien atzetik ikusita aukeratu zuela lankideak, aurrekoa nolakoa batere axola gabe. Eta damutu ez. Bazekien haren edertasuna ez zela soilik begiz neurtzekoa. Jakin nahi ez zituen beste gauza asko ere bazekizkien, lankideak ezkutatu ezinezko aztoramenduz bizi zuelako oraindik ere (ezkondu eta hamar urtetara) bere zoriona. Berrogeita hamar urteko nerabea ematen zuela gogorarazten

zion tarteka. Eta hark barre egiten zuen. Hil arte nerabe nahi zuela. Ez egiteko errietarik, mese.

“Ez daukat astirik. Eskerrik asko”, erantzun zion. “Ezin dut”, hotzegi, “Zertarako?”, zuzenegi, “Beste batean”, itxaropentsuegi eta halako ziento bat -egi baztertu ondoren, erantzun egokia huraxe jota: arrazoia aurrena eta kortesia segidan. Eta kito. Lankidearen bidez ezagutzen zuen senarrari ez zegokion beste erantzunik.

Biharamunean adarra jo zion lankideak begizuloengatik. Senarraren mezuarena esan-ez esan egon zen, txantxa giroan, baina irudipena izan zuen ez zekiela ezer. Jakin izan balu aipatuko zion zerbait seguru, eta argitu ere bai zertarako elkartu nahi zuen. Ez bazekien, malo. Eta mezua zehatza zen. “Ez du inork jakin behar” hark argi esan nahi zuen: ez dut nahi nire emazteak, zure lankideak jakiterik. Ez zitzaion bururatzen zertarako elkartu nahi ote zuen senarrak berarekin, eta nahiago ez pentsatu. Ez zion aukerarik eman eta harro zegoen. Topatuko zuen lankideari hitz erdi bat esateko modua. Momentuz, hobe bere horretan uztea gaizki ulertuen geziz norbait zauritzea baino.

Baina senarra ez zegoen bere horretan uzteko. Eguneko bi mezu jaso zituen ondorengo lauretan. Se-

tati. Egon beharra zeukaten. Garrantzitsua zen. Nahi zuen ordutan. Tokia ere aukeran. Beragatik mugituko zen noranahi eta noiznahi. Kafe bat besterik ez. Edo afari bat nahiago? Ez kalabazarik eman, mesedez. Behar zaitut. Eta abar.

Ez zion beste mezurik erantzun. Ez arrazoi eta ez kortesia. Lankidearenganako leialtasuna arrakalarik gabea zela argi geratzea nahi zuen. Mezuak gorde egin zituen. Zer gerta ere. Zenbat eta gehiagotan irakurri, orduan eta nahastuago sentitzen zen.

Eguneroko kilometroez gain gauak ere lankideari nola esango asmatu ezinik joan zitzaizkion. Mezuak erakusteko aukera aztertu zuen. Senarra ondo ezagutzen bazuen, aterako zuen ondorio zentzuzkoren bat lankideak. Baina, eta ez bazen komeni? Mezu haiek senarrarengan zuen konfiantza sendoa pitzatzen bazuten? Ez zion bere buruari inoiz barkatuko. Hain zegoen gajoa seguru senarrak eta biek zuten hartuemanaz. Eta hain zoriontsu azaltzen zen. Onena, garrantzirik eman gabe, “A, ba al dakizu zure senarrak idatzi zidala lehengo batean?” izango zen. Aitzakia on bat asmatu eta akabo. Ze aitzakia, ordea?

Begizuloak zulo bihurtu zitzaizkionean atsedena agindu zion medikuak.

Lehen bi egunetan kezkatuta deitu zion lankideak. Ondorengoetan ez. Senarrarekin sesioan irudikatu zuen. Sakelako mezuak harrapatuko zizkion. Bi bider traizionatua sentituko zen, bizitzako bere bi zutabe nagusiengandik. Froga zezakeen berak ez ziola senarrari aukera txikirik ere eman. Baina ezin jakin senarrak zer kontatuko zion. Bazekien, gainera, bi bertsio kontrajarriren artean norena sinetsiko zuen lankideak. Ez zeukan zereginik.

Antsietate krisiak jota ingresatu zuten astebetera. Ezinbizi hartara iristeko zentzuzko arrazoirik ez zegoela sinistuta, menopausiari egotzi zizkioten medikuek sintoma guztiak.

Menopausia erietxeko gelan agertu zen arte. Besarkada estua eman zion ohera makurtuta (ez ote zekien ezer artean?). Ertzean eseri zitzaion eta maindireak txukundu (bazekien eta barkatu zion?). Aurpegia laztandu zion (hunkituta ote zegoen leialtasunagatik gaixotzera iritsi zela ulertuta?), eta irribarrez hitz egin zion.

– Oso haserre egon naiz zurekin, badakizu?

Ez da gutxiagotarako.

– Hainbeste kostatzen al zitzaizun nire gizona zoriontsu egitea?

Lasaigarri gehiegi ematen zizkioten erietxean.

– Disgustu ederra dauka gizajoak.

Sukar ametsetatik zetozkion esaldi haiek.

– Behin eskatuko zerbait-eta! Min egin zidan, egia esango dizut.

Eta nori ez? Argitu egin nahi zion ez zuela zertan minik sentitu. Ez ziola senarrari jolasa jarraitu. Ezta txantxetan ere. Adiskidetasuna garrantzitsuegia zela beretzat. Baina ezin zuen hitzik egin.

– Errua nirea da.

Zer esaten ari zen? Errudunen bat izatekotan senarra zen bakarra.

– Beti sinetsarazi izan diot gure artekoa berezia dela. Edozer egingo zenukeela nigatik, eta nik zugatik, jakina. Eta gizajoa saiatu, eta zuk kalabazak.

Haserre zegoen ez zelako senarraren nahietara makurtu?

– Ez kezkatu orain. Hitz egingo dugu osatzen zarenean. Eta nolanahi ere, urtebetetze festa zoragarri atera zen. Zure konplizitaterik gabe, baina zoragarri.

Ezin zuen galdera zentzudunik eraiki.

– Lezio bat izan da niretzat. Arrazoi du nire senarrak: horixe gara gu, lankideak. Distantzia kontua da.

Ea lehenbailehen itzultzeko modua izaten duzun. Deskantsatu.

Kopetan muxu eman eta joan egin zen.

Haizagailua

Negar egiten zuen amonak jostailuzko haizagailua arrimatuz gero.

Hotzarengatik zela uste genuen.

Bakean uzteko agintzen zigun amak. Aztoratu egiten genuela gure esperimentuekin. Nobedade handiegia zen, ordea, guretzat, ez balego bezala jokatzeko. Eneko eta biok gela berean moldatu beharra ekarri zuen, harena izandakoa amonarentzat egokitzeak. Anaiak ez zion barkatu amari gela-desjabetzea. “Ez da betirako” entzuteak ez zuen lasaitu, eta mendeku txikiak hartu zituen erabakian parterik ez zuenaren kontra. Amonak ez baitzuen gure etxera nahi. Amona lasai zegoen baserrian. Lasaiegi topatu zuten auzokoek, mugimendurik sumatzen ez luzaz eta sartzera ausartu zirenean. Hilda zegoelakoan hots egin zioten amari, beste nori asmatu ezinik. Eta ez zegoen hilda. Baina bizirik ere ez.

Amak “Etxera” esan zuen guri galdetu gabe. Eta “Zuek biok hemen”, Enekoren gela hustu eta nirearen azpiko ohea zabalduz. Egun pare batean egokitu zuen etxea amonaren beharretara. Zaintzailea barne.

Hiru urte eta erdi egin zituen amonak gurean. Goiz batez ez zuen negarrik egin Enekok haizagailua aurpegiaren kontra jarrita ere.

Bero egiten du baserri atarian. Aspaldian edonon egiten du bero niretzat. Eta beroago, larrialdietan. Horregatik eramaten dut haizagailua beti boltsoan. Heltzen diodan bakoitzean amona etortzen zait gogora. Eta haren negar etsia.

Ez zen hotzarengatik.

Konturatzeke inguratu zait medikua. “Pare bat egunetan zaintza berezietan egon beharko du. Ikusi egin beharko da. Ez zenekien alergikoa zenik?”.

Haizea behar dut itoko ez banaiz.

Amona erabat hil ondoren hasi nintzen galdezka. Amari. Lehenago galdetu ez izanaren damurik gabe. Ezagutu nuenerako amona ez zen erantzuteko gai.

Ama ere ez. Onartzeak min ematen zion. Ez zekien ezer hain gazterik liluratu zuen gizonaren iraganaz. Gure aitaz. Ama zaharra bakarrik bizi zela baserrian. Aitarik ez zuela ezagutu. Haurtzaro bakartia izan

zuela. “Ez zuen hartaz hitz egin nahi izaten. Ez nuen estutu nahi. Azkarregi joan zen dena”. Egunen batean argituko zituelakoan. Ezagutu, ezkondu, gu jaio eta istripu madarikatua. Eneko eta biok urtebeteko ginela. *Egunen bateani*k gabe. “Baserriraino joan nintzen haren amari, zuen amonari esatera”. Errukituta. Berak esaten ez bazion, semezurtza zenik jakin gabe hilko zelakoan. “Ikusi nahi baduzu... baina ez dago ezagutzeko moduan”. Urrutira begira geratu omen zen amona. Ez “Zer moduz zaudete” bat, ez “Zerbait behar al duzue” bat. Ezer ez, negarraren oihartzun bat besterik.

Ez zen hiletara azaldu.

– Zergatik ekarri zenuen etxera?

– Zuen aitaren ama zen. Hala egin behar nuela iruditu zitzaidan.

Eta halaxe egin zuen. Eta hala azaldu zitzaigun egun batetik bestera bizitan hila zegoen emakume bat Enekoren gelan. Haizagailua aurpegira arrimatuz gero negar intzirika hasten zelako genekien bizirik zegoela.

Volker bere aitonaren arrastoaren atzetik azaldu zen baserrian. Auzokoek hitz egin zioten nitaz. Itxarope-

nez hots egin zidan nire berri izatea lortu zuenean. Ez. Ez nuen amona ezagutu. Hiru urte eta erdi egin zituen gure etxean. Ez nion inoiz hitzik entzun. Ez, ez. Hitzik ez. Orokorrean. Baserria bai, nirea da orain. Ez. Hutsik dago amona hil zenetik. Ez. Ez dakit zer egingo dudan harekin. Bai. Zabalduko diot atea. Bai. Miatu ditzake bazterrak nahi adina. Ez. Nire aldetik ez dago arazorik.

Volker ziur dago amonaren baserrian egin zuela egonaldia izen bereko haren aitonak. Marrazkiak ditu froga. Ganbarara nahi du. Ez da zalantzarik. Ganbaratik ateratako argazkiak dirudite aitonaren marrazkiek. Ganbara honek izan zuen denboraldi batean bizilagun marrazkilari bat. Lapitzez egiten zituen argazkiak ganbaratik. Zazpi helarazi zituen etxera, bi urtetan. “Hemen nago” esanez bezala. Zazpigarrenean aurpegi bat. Neska gazte batena. Eta gero ezer ez.

Volkerrek aitaren paperen artean topatu zituen marrazkiak. Hogeitaka urteko. Eta bakerik ez marrazki haien jatorria aurkitu arte. Negarrez lehertu da batbatean. “Gogorra da” esaten du. Gogorra da bizitza osoko ikerketa ezerezean amaitzea. Lekuraino iritsita. “Sentitzen dut”. Sentitzen dut lagundu ezina.

– Soinu hori? –galdetu du Volkerrek izututa.

– Erleak ematen dute. Erlaroa.

Zurbilduta irten da atarira.

– Deitu larrialdietara. Mesedez. Alergikoa naiz.

Aurpegia itxuraldatu zaio. Ez da beldurrarengatik. Konturatzerako heldu diote. Gortuta harrapatu dute. Bere ametsen soinuek enmaskaratu dute erleena. Marrazkietako tokiak desertoreak marraztu zituela entzun nahi zuen. Marrazkiko neskatoa gure amona zela entzun nahi zuen. Berrogei urte daramatza behin betiko frogaren baten bila. Ezkutalekuraino iritsi eta han, argibiderik ez, erlea besterik ez.

Bero egiten du itxarongelan. Aspaldian edonon egiten du bero niretzat. Eta beroago, larrialdietan. Horregatik eramaten dut haizagailua beti boltsoan. Heltzen diodan bakoitzean amona etortzen zait gogora. Eta haren negar etsia.

Neskato irudikatu dut arropak biltzen. Soldadu ezezagun gaztea azaldu zaio maindire artetik laguntza eske. Neskatoak ez du bi aldiz pentsatuko. Denak belarretan dira. Ganbarara. Ahal duenean helarazten dio jatekoa. Mutil goxoa da. Keinuz ulertzen dute elkar. Hala ulertarazi dio papera eta arkatzarena ere. Tarteka alboan esertzen zaio marrazten ari den bitartean.

Irribarre egiten diote elkarri. Sekretuak batzen ditu. Neskatoak ahal duen guztian lagunduko dio. Baita marrazkiak etxera bidean jartzen ere. Helbidea buruz ikasi du, badaezpada, ez da komeni inork ezer jakitea. Ezin du mutil txarra izan. Haren begiek ez diote gezurrik. Betondoak ezkutatuta dauzka gorpu topatu duen egunean. Ez da bere sekretu goxoaren arrastorik erleen bazka dirudien gorpu hartan.

Ez dakit nola moldatuko ote zen amona, soldaduaren gorpua ezkutatzeko. Ez dakit inori esango ote zion ezer. Ez dakit zer min sentituko ote zuen momentu hartan, eta ondokoetan. Ez dakit ordutik edo ordurako zen mutu.

Enekok sinesgaitz erantzun dit:

– Dena asmatzen ari zara.

– Jakina. Baina hala kontatuta, ez al da sinesgarria?

– Ondo kontatuta, edozer da sinesgarria. Ez duzu frogarik.

– Hala balitz ez zenuke hobeto ulertuko aitak ezer ez kontatu nahia, amonaren hoztasuna, haren azken urteetako negarra...

– ...eta gure aita zenaren begi urdinak? –barre algara batean lehertu da–. Ez duzu erremediorik.

Hankak lurrean ditu Enekok.

Volkerrek ohean oraindik.

“Pentsatzen aritu naiz” esan diot. Amonaren negarrarena kontatu diot.

– Ez zen hotzarengatik. Ez zion haizagailuak hotzarengatik negar eginarazten. Hotsagatik igual?

Boltsotik haizagailua atera, piztu eta aurpegira arrimatu diot.

Begiak itxi ditu. Esker onez.

Gonbita

– Amak deitu dizu.

– Etxera?

– Etxera, bai. Ez omen diozu mobila hartzen.

– Mobila hartzeko moduko eguna izan dugu ba gaur!

– Galdetu dit zer egiten dudan nik zure etxean.

– Eta?

– Ez dut jakin zer erantzun.

Badakizu? Lantokian azaldu zitzaidan behin zure ama. Ez nintzen jabetu nor zen parez pare jarri, goitik behera aztertu eta hizketan hasi arte.

– Igandean azalduko ote naizen jakin nahiko du.

– Ez diezu oraindik ezer esan gureaz, ezta?

“Zu zara orduan semea lapurtu didan autobus-gidaria”, esan zidan. Aurrez aurre ezagutu nahi ninduen. Espero zuena: neska polita, hala esan zidan, polita naizela. Bere seme ameslaria itsutzeko adinakoa.

Hainbeste imajinatzen omen zuen. “Ageriko edertasunak iraupen laburra du, ordea”, gehitu zuen.

– Aita suspertu bezain pronto kontatuko diet. Desiratzen nago. Pattal xamar dago oraindik.

– Eta ez diozu beste disgusturik eman nahi.

– Ulertzen duzu, ezta, laztana?

– Erantzi arropak. Irten baino lehen labadora jartzea komeni zaigu.

“Halako etorkizun ederra izan zezakeen mutila, eta begira! Supermerkatu ziztrin bateko almazenean konforme, aizu. Aitak hiriko bulegorik onena erosteko modua izanda. Abokatu bikaina izango zena. Baina, aizu, almazen eskas horretako gauzek ere lehentxeago edo beranduxeago topatzen omen dute beren apala. Hala esaten du gure semeak. Hark esaten badu hala izango da”.

– Hemen geratzen bagara?

– Eta antzerkirako sarrerak?

– Nik gusturago ikusiko nuke pelikula bat, sofan. Biok bakarrik. Aukeratu zuk.

“Buru argia du. Hori ez du momentuko itsutasunak aldatzen. Eta aizu, nik ere ez dut itxaropena galduko: aurkituko du berak ere apal egokia lehentxeago edo geroxeago. Bitartean, etor zaitezke etxera bazkaltzera. Hilean behin, nahikoa”.

– Deitu egin beharko diot.

– Ez zarela joango esateko?

– Urduri egongo da gajoa.

– Igandekoa gogoan duzu?

– Ea zer behar duen.

– Badakizu zer nahi duen.

– Ez haserretu, laztana. Aita sendatutakoan esango diet eta elkarrekin joango gara. Pazientzia pixka bat besterik ez dizut eskatzen.

Ez nion ezer erantzun.

Zuri ere ez nizun esan. Hark ere ez gonbidatu nin-duenik.

Buruhaustea

Ez dakit nolakoa, esan nahi dut, ez naiz horretan pentsatzen jarri. Ze aukera dauzkat, edo ze eskaintza dauzkazue? A, begira. Nik uste nuen, esan nahi dut, deitu dut sinistuta datu garrantzitsuenak eman eta hortik aurrera zuek moldatuko zinetela. Hala ulertua neukan. Bai, bai. Ez da gauza bera, ez. Ez, jakina. Ez dut curriculum vitaerik nahi. Ez da hori. Orduan, nola egingo dugu? Bidaliko didazue katalogoa? A, gaur bertan? Oso ondo. Prezioak ere modalitatearen arabera desberdinak izango dira, noski. Bai, bai. Ulertzen dut. Eta bakoitzetik bana eskatuz gero? Eskaintza berezirik egiten al duzue? Ez, ez. Ez daukat batere presarik. Azalduko naiz bihar-etzitan. Nahiago aurrez aurre, bai, esan nahi dut, gai delikatua da hau horrela telefonoz. A, posta elektronikoz bidaliko didazue? Konforme. Esango dizuet zerbait.

Nork: betirakobizitza@gmail.com
Nori: balizko@gmail.com
CC: bbidazleak@gmail.com;
bbadministrazioa@gmail.com
Gaia: Katalogoaz

Lehendabizi eta behin, gure doluminak izan duzun galerarengatik, eta eskerrik asko gure zerbitzuetan jarritako konfiantzarengatik. Ez zara damutuko.

Telefonoz aurreratu genizun bezala Betirakobizitzan gure bezeroaren azken nahia betetzea dugu funtsezko helburua. Segidan azalduko dizkizugun eskaintzez aparteko desioren bat bazenu, eskertuko dizugu jakinaraztea. Hartara egokitzeko ahaleginera bideratuko ditugu gure baliabide guztiak.

Hona hemen aukerak (merkeenetik garestienera zerrendatuak; aurrekontua ere bezero bakoitzaren ahalmenera egokitzeko arazorik ez dugu izaten).

Hilmezua/

Gehien eskatzen digutena. Datu biografikoekin joan ohi da. Utzi gaituen pertsonaren izen-deiturak (izengoitirik balu hura ere jartzen dugu), adina, eta heriotzaren data. Familiartekoen zerrenda ondoren. Eta esaldi bat, gehienez bi.

Gero eta gehiago dira oharra datuz baino hitz ederrez jantzi nahiago dutenak. Bezeroaren aukera da, beti ere.

Aurrekontua asko aldatzen da hilmezuaren zabalkundearen arabera. Argitara liteke prentsan, irratietan eta sarean. Zenbait herritan etxe-atarietan jartzeko ohiturari eusten diote. Bezeroak aukeratutako bidea onesten dugu.

Hilartitza/

Harrian grabatuta joan ohi da. Kanposantuko hilarrian, gehienetan. Baina egin liteke beste edozein materialekin. Azkenaldian egiten ari gara hil-kutxetarako eta potoetarako ere. Gero eta herri gehiagok potoentzat eskaintzen dituzten hilobietarako ere egiten hasita gaude.

Esaldi bakarra izaten da. Gehienez bi. Bezeroak aukeratzen ditu, utzi gaituena gogoan, hari eskainitako hitzak, hari gorazarre egitekoak. Hark beti errepikatzen zuen esaldiren bat ere oso egoki geratzen da.

Aurrekontua asko aldatzen da materialaren arabera.

Hilberriak/

Aspaldian arrakasta gehien duen aukera. Hilmezua baino luzeagoa, gero eta senitarteko gehiagok aukeratzen du galdu duten pertsonari buruzko aipamen pertsonalago hau. Hildakoari omenaldi egiteko modu bat da. Hildakoaren bizitza jaio eta hilen arteko marra txiki hori baino gehiago izan dela adierazteko baliagarri. Kontsolamendurako ere bai (hala aitortu digute aukera honetaz baliatu izan direnek). Nahi adina aukera zabaltzen dira hilberrietan hasiz gero. Bezeroak aukera dezake zer kontatu, nola (garrantzitsua), eta galdu duen senideaz zer geratzea nahi duen betirako.

Aurrekontua, aurrekoetan bezala, kasuan kasukoa.

Hilberriari eman nahi zaion zabalkundea ere kontuan hartzekoa da: ez da gauza bera irratirako minutu parea, prentsan hilmezuaren neurrian edo orrialde erdia, eta telebistaz zabaltzeko aukera aztertzen ari gara. Interes handia agertu diguten arren, ezin genezake eskaini momentuz telebistako tarterik.

Elegiak eta biografiak/

Betirakobizitza atal hau lantzeko ametsez sortu genuen. Hauei esker lortuko lukeelako jada gure artean ez denak betirako bizitza.

Bezeroaren inplikazio handiagoa eskatzen du, jakina (ezin dugu guk inoren bizitza asmatu), eta beharbada horregatik eta epeak ere ez direlako egun batetik besterakoak, ez du guk nahi adinako arrakastarik izan oraindik.

Merezi du saiatzeak, hala ere. Gauza gutxi, maite izan duzunaren bizitza betirako liburu batean jasoa izatea baino. Gure ametsen artean, egunen batean hildako pertsona bakoitzak merezi duen liburua izateaz gain, bere filma ere eduki ahal izatea. Proiektua prest dugu aspaldi, finantziazio egokiaren bila.

Esan bezala: bezeroaren nahia betetzea da gure helburu funtsezkoa. Eta hartara jarriko gara.

Zure esanetara,

Nork: balizko@gmail.com
Nori: betirakobizitza@gmail.com
CC: bbidazleak@gmail.com;
bbadministrazioa@gmail.com
Gaia: Er: Katalogoaz

Jaso dut zuen mezua. Milesker.

Buelta batzuk emanda nago neroni ere, eta “Garai ederrean zatoz. Beti beranduegi” edo tipo horretako zerbaitekin pentsatzen ari nintzen, zerbait zuzena, ulergarria, eta mundu bat zabaldu didazue. Eta buruhauste ederra jarri ere bai! Esan nahi dut, ez da gauza bera esaldi bakarreko mezua edo liburu oso bat utzita joatea! Pentsa zenbatentzako mezuak utzi litezkeen liburu betean!

Tentatzen nau. Kontuan izanda hildakoa neu izango naizela, interesgarria iruditzen zait neure bizitzaz liburua idaztearena. Esan nahi dut, neuk kontatuta. Garaiz nabilenez, zenbat ale eta nori bidali ere erabakita utzi dezaket. Bai. Tentagarria da.

Izango al nuke nitaz idatzitakoaren gainean erabakimenik? Esan nahi dut, nitaz baldin bada, nik izango dut azken hitza, noski... Ni hil ondoren inork ez du aldatzeko aukerarik izango, ezta? Norbait nire senarra dela esanez etorriko balitz ere ez? Ez baitu dibortzio paperik sinatu nahi, aspaldi apartatu ginen arren.

Garrantzitsua da niretzat argitzea.

Zenbatean aterako litzaidake?

Erantzunaren zain,

Nork: betirakobizitza@gmail.com
Nori: balizko@gmail.com
CC: bbidazleak@gmail.com;
bbadministrazioa@gmail.com
Gaia: Er: Er: Katalogoaz

Eskerrik asko zure konfiantzarengatik.

Zure kezkari erantzunez, leialtasuna zor diogu gure zerbitzuak kontratatzen dituen guztiari. Zuk erabakitakoa hitzez hitz beteko dugu.

Komeniko litzaiguke zure bizitzari buruzko informazioa hil baino hamabost bat egun lehenago eskuratzea. Azken ordurako utziz gero garestiago ateratzen da.

Ordainketa hil baino bost egun lehenago egiten baduzu ehuneko hamarreko deskontua aplikatuko dizugu.

Aurrekontuak erantsita doazkizu.

Izenordainak

“Zuek badakizue bost krisiaz” esan dit. Biok bakarrik gaude. Ni naiz “zuek”. Maleta egin dut.

Hitzei garrantzi handiegia ematen diedala leporatzen dit. Ez dela hizkuntzalaria. Ez dituela apropos aukeratzen. Oraintxe bat etortzen zaiola eta hurrena, bestea. Nire ondorioak barregarriak direla. Batzuetan zer esan ez dakiela geratzen dela zer azterketa klase egingo ote diodan beldur. Zaila dela hitz bakoitzaren atzean intentzionalitate bat aurkitu nahi duenarekin bizitzea. Hitzak hitzak direla. Ez besterik.

Era askotako hitzak daude. Ez diot inoiz izenordainena zehaztu. Ez nuke jakingo esaten zer kontatu zidan elkar ezagutu genuen egunean. Gogoan dut “ni” hainbestetan errepikatzen duen inor ezagutu gabea nintzela. Marratxo ikusezinak egin nituen airean esaten zuen bakoitzean. Harroxko maitagarri bat iruditu zitzaidan. Ez zitzaidan burutik pasatu ere egin aditzen bat geroaldian eta lehen pertsona pluralean jokatuko genuenik. Halaxe gertatu, ordea. Eta horretan ere izan zuten zerikusia izenordainek. Hurrengo hitzorduetan zu-k hartu zion gaina ni-ri. Dena izan zen zu: zu beza-

lakorik, zu bezain zoragarria, zure, zurekin, zuretzat, zuregana. Banekien aldi baterako izango zela. Eta hala ere.

Gutxira bihurtu ginen gu. Ilusioak eta proiektuak gu-ka kontatzen hasi ginen, arrakastak eta porrotak gu-ka konpartitzen. Ez zuen luze iraun. Normala iritzi nion. Maitemintzeak ez du inor aldatzen. Ni handiei kosta egiten zaie ezkutuan bizitzea. Eta hala ere.

Arazoak ez zituen ekarri izenordain bat edo beste lehenesteak. Haien erabilpenak baizik. Edozein galdera, iradokizun, irudipen, iritzi ni-tik erantzun, osatu, kontrastatu, eztabaidatu edo onetsi beharrean zu jaurtitzaileekin hasi zen. Labanak bezalako zu-ak. “Zuk beti uste izan duzu ni baino azkarragoa zarela”. Zorrotzak. “Ohituta zaude zu gauza bat pentsatu eta bestea esaten”. Mingarriak. “Erraz erabaki duzu zuk hori, nik halako bi irabazita”. Mendekuz edo gorrotoz pozoituak. “Zu sinistuta zaude zoragarria zarela, hori da zure arazoa”. Bereziki erasokorrak bihurtu ziren edozeri buruzko nire esaldia “zergatik” hasiz gero. Eta hala ere.

“Zuek badakizue bost krisiaz” esan dit. Lagun bati deitu diot gaur gauerako tokirik ba ote duen galdetzeko. Maleta eta biontzat. Ni eta nire maletarentzat.

Ezezaguna

Sakelakoa belarrian sartu dira bi emakumeak itxarongelan. Aulki bera jo dute begiz, keinuz eskaini diote batak besteari, eta azkenean parez pare eseri dira. Eta bat-batean beste telefonoren bat hasi da joka.

Biek miatu dute boltsoa esku bakarrez, belarrian dutena baztertu gabe. Gazteenak atera du deika ari den telefonoa. Muturra okertu eta moztu egin du gero.

– Beti momentu desegokian, ezta? –esan dio helduak, konplizitatez.

Gazteak baietz egin dio buruarekin.

Telefonoz hizketan jarraitu dute, bakoitzak bere solaskidearekin.

– Nirea zen. Bestea, bai –argitu du gazteak.

– Badakizu nirea balitz erantzun egingo nuela –helduak.

– Igual dio. Ez zen garrantzitsua.

– Nik ez dut inor erantzunik gabe uzten. Inoiz ez.

– Zurekin ari naiz orain.

– Sekula ez dakizu norbaitek beharko ote zaituen.

– Laneko konturen bat...

– Ez nuen hori esan behar, ezta?

– Ez zu urduri jarri, behintzat, nik erantzun gabeko dei batengatik!

Berriro joka hasi da gazteak boltsoan duena.

– Berriz ere lanetik ari dira ba. Ez horrela jarri, ama. Erantzungo dut. Zuk ez moztu.

– Eskerrik asko entzuteagatik. Pazientzia handia daukazu nirekin.

Gazteak bigarren deia erantzun du lehendabizikoa moztu gabe.

– Zer? Ez. Ez nago etxean. Zer ba? –haserre.

– Arrazoi duzu –umil, helduak–. Ahaztu egin beharko nuke.

– Zuzenduko dut gauean.

– Baina ikusi egiten dut, ulertzen?

– Esango dizut gero.

– Erortzen ikusten dut.

– Orain ezin dut.

– Ez, ez naiz berriro hasiko. Ez zait komeni, ez. Zuk arrazoi.

– Telefonoz ari nintzen!

– Baina ikusi egiten dut, hantxe, espaloian, lehertuta.

– Beste telefonotik, jakina.

– Eta telefonoa...

– Galdetu al dizut nik zuri zenbat telefono dauzkazun?

– ...joka.

– Zer esaten ari zara?

– Ez moztu, mesedez.

– Aio.

– Mesedez...

Gazteak gorde egin du bigarren telefonoa. Etendako konbertsazioari heldu dio berriro.

– Zer? Lasaiago horrela? Erantzun dut. Ama? Hor al zaude?

Bakoitza bere telefonoari begira geratu da. Tristuraz, heldua; amorrazioz, gaztea. Elkarri begiratu diote gero.

– Niri ere moztu egin dit. Ze grazia, ezta? –esan dio helduak.

– Zertan dago grazia? –jakin nahi izan du gazteak.

– Ez dakit. Moztu izana. Bioi aldi berean –argitu nahi izan dio helduak.

– Telefono aluok –marmarka gazteak.

– Zuk ere bi dauzkazu. Grazia egin dit.

– Niri ez dit graziarik egiten bi eraman beharrak.

– Nik ere lehen bi besterik ez nituen.

– Jakingo duzu telefono bat, bi edo ehun edukitzeak ez duela ezer aldatuko, ezta?

– Aldatu, zer?

– Edozer dela ere. Espero duzun deia ez da iritsiko.

– Nola dakizu? –izututa, helduak.

– Esan nahi dizut dei hori ez dela errazago iritsiko telefono gehiago edukiagatik.

– Hori badakit, jakina. Baina, badakit, iristen denean ez duela telefonoa okupatua harrapatuko ere.

– A. Ezagutzen dut istorio hori. Zoritxarrez.

– Eta? Izan zenuen laguntzeko modurik? –jakinminez, helduak.

– Lagundu? Saiatzen naiz. Ez alferrik!

– Salto egiten du, ezta?

– Salto? –harrituta, gazteak.

– Balkoitik.

– Ze balkoi? –harrituago, gazteak.

Gaztearen telefonoak eten du atzera berriz bien arteko solasaldia.

– Ama! Moztu egin didazu! Esan dizut ba ez mozteko!

– Beti egiten du salto balkoitik –jarraitu du bakarrizketan helduak.

– Ama! Ezin didazu telefonoa moztu beste bakarren batek deitu dezakeelakoan.

– Eta beti geratzen da telefonoa joka. Ezerezari joka –berean, helduak.

– Ez kezkatu horregatik –amari, gazteak–. Tarifa plana daukat.

– Nik entzun egiten dut. Han, nonbait. Jo eta jo.

– Ez daukazu ulertu beharrik. Zu ez preokupatu horrekin. Esaten badizut ez mozteko, ez moztu. Eta kito.

– Inork ez du erantzuten.

– Ama, mesedez! Ez, ez dizut tarte honetan berriz deitu. Beste norbait izango zen. Zenbakiz nahastu den bakarren bat, seguru! Eta jendea nahastu egiten da zenbakiz. Egunero. Ez kezkatu, ama. Garrantzitsua baldin bada, deituko dizu berriro.

– Deitu zidanean galdetu nion: nor zara?

– Ba, moztu. Horrek lasaitzen bazaitu... –etsita, gazteak.

– Nire lagunik onena, esan zidan. Ze lagun?

– Ama: Telefonoa kendu egin beharko dizut azkenean, preokupaziotarako beste ezertarako ez bada, entzun? Deituko dizut gauean. Eta lasaitu pixka bat.

Emakume heldua negarrez hasteko zorian dagoela iruditu zaio gazteari.

– Aizu, ondo al zaude?

– “Lasaitu pixka bat” esanda ez duzu lasaituko.

Helduaren telefonoa joka hasi da berriz.

– Barkatu, dei hau erantzun beharra daukat. Bai. Bai. Nik, bai. Nik deitu dut. Ez, zera, nobedaderik edo ba ote den. Badakizu. Bai, bai. Ulertzen dut. Bai. Eskerrik asko.

Gazteak errukituta begiratu dio emakume helduari.

– Ez zen espero zenuen deia. Ez da nire kontua, nolanahi ere...

– Eskertzen dizut interesa.

Gazteak ordua begiratu du telefonoaren pantailan.

– Telefonoa etxean uzteko esango dizu –argitu dio helduak, medikuaren atea seinalatuz.

– Nik ez dut arazorik telefonoarekin. Amarengatik etorri naiz.

– Telefonoa debekatzeak sendatuko duela uste duzu?

– Ez dakit. Baina ezin zara bizi telefonoak noiz joko, eta jotzen badu beldurtuta, eta jotzen ez badu beldurtuago. Eta ezezagunen batek deitzen badu bel-

durtuta, eta nork deitu duen ez badakizu, berdin. Hala bizi da gure ama.

– Bera etortzea hobe igual.

– Ez du entzun ere egin nahi!

– Nik ere ez hasieran. Gertatu zenean.

– Zu ez zaitu izutzen telefonoak.

– Dexente.

– Ez zait hala iruditu.

– Nireak ez du konponbiderik.

– Zertarako etortzen zara orduan?

– Medikuak entzun egiten didalako.

– A.

– Aspertu zaitut zu ere.

– Ez, ez.

– Telefonoari begira zaude.

– Baina entzuten zaitut.

– Behin dei bat jaso nuen. Emakume batena. Ez nion izena jaso. “Etxean nago. Balkoitik salto egitera noa. Esan egin nahi nizun”. “Zaude”, moztu nion. “Zu zara nire lagunik onena”, esan zidan. “Horregatik deitu dizut”. “Nor zara?” galdetu nion. “Nire lagunik onena zara” errepikatu eta moztu egin zuen. “Zaude”, erregutu nion. Saiatu nintzen telefono zenbaki ezezagun hartara deitzen. Erantzunik ez. Deitu nuen larrial-

dietara. Kontatu nien. Non zegoen galdetu zidaten. Eta nik ez nekien. Ez nor zen, ez non zegoen, ez beste ezer. Egunero deitu dut harrezkero zenbaki hartara. Egunero deitzen dut larrialdietara ea berririk ba ote duten. Ezinezkoa da gorpu bat hain erraz desagertzea. Esnatzerakoan eta lotarakoan ikusten dut, espaloian lehertuta, eta telefonoa balkoian joka. Alferrik joka. Litekeena da azken orduan iritzia aldatu izana. Igual deituko dit berriro. Ez al zaizu iruditzen? Horregatik nahi dut zenbaki hura beti libre. Badaezpada. A, begira. Nire txanda da. Baina nik ez daukat presarik. Pasa zu aurretik, ea zer esaten dizun.

Sudurra

Lepondoan agertu zitzaion inpentsan eta bazekien horixe ezin zuela jasan idazten ari zen bitartean. Pantaila kolpez itxi eta jiratu egin zen.

– Pinotxo? Umeentzat idazten ari al zara orain? Ez al zuen hor Pinotxo jartzen?

– Ez zenuen irakurri behar. Badakizu ez zaidala gustatzen.

– Barkatu, idazle andrea. Segi zure Pinotxori sudurra luzatzeko gezurrak asmatzen.

Pinotxorena lehendik ere idatzita zegoela esanez erretiratu zen. Umeari behin baino gehiagotan kontatu izan ziola haren sudurrarena.

Pinotxo erakutsi zidan egunaz akordatzen naizenero lotsatu egiten naiz. Hain zegoen harro. Eta hain mozkor ni.

Gogoan dut gezurraz hizketan hasi zitzaidala. Horraino bai. Denok behar genukeela gezurra esanez gero ipurtagerian utziko gaituen ezaugarriren bat. Gezurti gehiegi dagoela munduan. Onartu nion nire ego-

eran egia eta gezurra antzekoak zirela. Beste gintonic bat eskatu nuen. Serio jarri zen: nirekin ez zara inoiz nahastuko. Serioago: ez zaitut egia eta gezurra bereizi beharreko atakan jarriko sekula. Eguna lokartzerako esnatzen den ordu klase horietan betirako promesak barregarri entzuten dira. Eta horixe egin nuen: barre. Orduan hasi zen Pinotxoz, bere Pinotxoz. Niri erakusteko desiratzen zegoela. Eta nik zeregin hoberik izan nezakeenik pentsatzeko gaitasunik ez. Etxerako gonbita onartu nion, Pinotxo gorabehera.

Handik aurrerakoa ez daukat argi. Ez nola eta ez nora joan ginen behintzat. Gogoan dudan hurrengo irudian tipoaren hankartea daukat begien parean. Zakila (harena) ahotik (niretik) zentimetro eskasera, eta haren alde banatan, atzeraxeago, bi begi zabal-zabalik niri begira, kapela horiaren azpian. Izutu egin nintzen. Pinotxoren sudur oker hura irensteko zorian nengoenean etorri nintzen kolpean nire onera. Pinotxorenak baino handiago nire begiak, segundo erdi nahikoa izan nuen nor nintzen baino zertan ari nintzen konturatzeko. Ez nuela haren Pinotxorik nahi esan nionean zutitu, sudurra tente-edo, eta hitzik gabe atea zabaldu zidan duintasunez-edo.

Ez nion argitu txiste ustekoa juxtu logikaren kontrakoa zenik.

Hori gerora pentsatu izan dut.

Egun hartan burukomina neukan. Ez nintzen gai bi pentsamendu segidan kateatzeko.

–Benetan liatu zinen potroetan Pinotxoren tatuajea zuen tipo batekin?

– Mattea, ipuin bat da.

– Pinotxo? Pinotxo tatuatuta? Eta buztana, suduraren tokian? Mesedez! Ze ridikuloa!

– Hitzak besterik ez dira. Jolasa. Literatura.

– Eta umeak Pinotxorena eskatzen didanean? Zer arraio kontatu behar diot? Konturatzen al zara zer egin didazun?

Etorkizuna

Nire gurasoak urduri jartzen ziren amatxi etortzekoa zen bakoitzean. Oso gutxitan etortzen zen. Medikutarako ordua goizean goiz zuenetan bakarrik. Amatxi, aitaren ama, urruti bizi baita. Urruti, herrira oinez jaitsi eta bata bestearen segidan autobusak eta, presa, ezina edo pereza izanez gero, taxia ezinbesteko duenarentzat. Autoan minututan konta liteke joan-etorria. Horregatik joaten zen aita haren bila eta etxera ekartzen bezperatik.

Etorkizuna irakurtzen du amatxik. Asmatu, zehaztu zuen behin amak, irakurri ez. Amatxik entzun eta arrazoi eman, horixe, asmatu egiten zuela. Bete-betean asmatu ere. Asmatuko ez balu, inor ez litzaiokeela hurbilduko.

Ama ez zitzaion hurbiltzen. Juxtukoa bakarrik. Kortesiazko muxu parea ematen zioten elkarri lehen. Amatxik burua apartatu zionetik ama ez zen gehiago saiatu. Aitak txikikeria hura noiz ahaztuko ote zuen galdetu zionean etorkizuna asmatzea beste baten gaitasuna zela gogorarazi zion amak.

Amatxiren gaitasunik gabe asma nezakeen nik etortzekoa zela. Inork esan gabe. Batik bat inork ez zuelako ezer esaten. Galdera edozein zela ere erantzunik luzeena hitz bakarrekoa bihurtzen zenean, etortzear zen seinale. Ez nintzen noiz zehazteko gai. Amatxi ere ez bere iragarpenetan. Zer bai, baina noiz beti etorkizun.

Txikitan nire ohearen ondokoa prestatzen zion amak. Neska handia nintzela eta ohe handiagoa behar nuen aitzakian kendu zuen logelatik. Gero aitak ganbaratik jaitsi behar izaten zuen tolesgarri bat eta egongelan prestatu.

Etxe txikia da gurea. Baina ez diogu inoiz elkarri trabarik egin amatxi etortzen zenetan bezala. Aita eta ama, bata bestearengandik ihesi, amatxi eta ama pasilloan ez gurutzatzeko ahalegin antzuan, eta ama, amatxiri nirekin bakarrik geratzeko saiakerak nola oztopatu asmatu ezinean. Eta denak disimuluan.

Amak beti izaten zuen lanean eginbeharrekoren bat amatxi etortzekoa zen iluntzeetan, baina ez zen berandutzen aita oheratu eta gu biok bakarrik geratzeko adina. Aita inoiz baino goizago loguretzen zen. Ez dakit ama oheratu ere egiten ote zen. Gaubeila

eginda bezala jaikitzen ziren eta ama ez zen lanera joaten ni eskolara baino lehen. Eta dena disimuluan.

Astebetera esaldi luzeagoz erantzuten zuten. Bizpahiru geroago hasten ziren galdera beharrik gabe hizketan. Ez zuten amatxiz ezer esaten nire aurrean.

Amatxi etxean izan zen azken aldian esaldi luzeak harekin joan ziren.

Handik aste batzuetara aita institutuan agertu zen. Hura han ikusi eta amatxi hil nuen. Bizkarretik heldu eta, “Zer?, zurito bat hartuko al dugu?” bota zidan, “Ez da ezer gertatzen” esan nahian. Nik banekien bazela zerbait. Ezer gertatu ez balitz ez ginen biok tabernan sartuko. Eta ez. Ez nuen zuritorik eskatu. Zuritoak lagunartean bakarrik eskatzen diren adin hartan nengoen. Mostoarekin konformatu nintzen, aitak berea nola irensten zuen begira. Eta bai. Amatxi zen gaia. Ez haren heriotza, ordea. Aspaldian ez zebilela ondo esan zidan. Ez nion nik ondoez handirik sumatu azken bixitan, eta halaxe atera zitzaidan. “Badakizu nolakoa den amatxi, ahuldaderik ez agertzeagatik”, baina adinean aurrera zihoala eta laguntza behar zuela. Haren etxera igoko zela denboraldi baterako. Ez zekien astea edo bi hilabete. Ama zuen. Hainbeste zor

zion. Deituko zidala tarteka kobertura topatzen bazuen.

“Eta ama?”. “Ez zaio gustatu, badakizu nolakoa den ama. Denbora behar izaten du gauzak ulertzeko”. Gero beso artean bildu ninduen, txikitan bezala. Elkarrekin egin genuen etxerakoa. Atarian agurtu ninduen, eskua altxatuta, “Zaindu ama!”.

Amak ez zuen ezer esan bolada batean. Ez aitaz, ez amatxiz, ez beste ezertaz.

Goiz batez jaiki eta egun on baino lehen amatxirengana gindoazela esan zidan amak. “Aitaren etxea hau da. Eta ama, ama izango du, baina ez dauka han bahituta edukitzeko eskubiderik”. Ziztu batean gosaldu eta konturatzerako amatxiren baserrian geunden. Amatxik beso zabalik hartu gintuen. Itxura oso oneko zegoen. Muxu ematerakoan belarrira esan zidan, izar batek iragarria ziola azalduko ginela eta horrexegatik zeukala kafe egin berria. Mahaiaren bueltan kafesne banarekin galdetu zigun ea nolaz gu han. Amari begietan irakurri nion erantzuna hitz bihurtu baino lehen aurreratu egin nintzaion, eta aita etxera itzultzea nahi genuela aitortu nion amatxiri. Luze egiten ari zitzaigula haren falta eta horixe esatera etorri ginela. “Ulertzen dugu gaizki egon zaren bitartean laguntzera eto-

rri izana, baina bakarrik moldatzeko gai baldin bazara, atzera berriz gurekin nahi dugu”.

Amatxi kafesneari begira geratu zen. Zopek erantzun egokiren bat eskainiko ziotelakoan.

Ama, amatxiri kafesne-zopatan ere etorkizuna irakur zezakeela esaten bazion, irainik mingarriena zein izan zitekeen pentsatzen.

Begiak itxita ikusi nuen dena nik. Pasatakoa etorkizuna baino argiago. Segundo bakarrean.

Denbora gehiago behar izan zuen amatxik. Kafesnea ondo hoztuta zegoen amari zuzen begiratzera ausartu zenerako. Eta hala ere koilaratxoari jiraka jarraitzen zuen, “Nik ez dakit ezer” esan zuenean.

Amak begi zabalik segitzen du oraindik. Ez dio sinistu amatxiri aitari laguntza eskatu ez zionik. Aitaren berririk ez duenik ere ez. Ez dago prest amatxirena aitak alde egiteko asmatutako aitzakia izan zela entzuteko. Nahikoa lan badu oraingoz iragana irakurtzen. Gero etorriko da orainaldia asmatu beharra. Dena etorkizun.